



# Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna

EPE ERTAINERAKO UDALAREN I.

berdintasuna  
berdintasuna  
berdintasuna  
berdintasuna



## AURKIBIDEA

<b>1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO ALTSASUKO PLANA</b>	
1.1. Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Planaren izaera	3
1.2. Denbora esparrua	5
1.3. Planaren normalizazioa Altsasuko udalean	5
1.4. Plana sistematizatzeko faseak	6
<b>2. PLANAREN SISTEMATIZAZIOA: KONPROMISOA</b>	
2.1. Konpromiso politikoa	7
2.2. Herritarren konpromisoa eta gizarte ekimena	11
2.3. Erakundeen eta gizartearen parte hartze prozesua, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako Altsasuko planaren osaeran	11
<b>3. PLANAREN SISTEMATIZAZIOA: OINARI JURIDIKOA ETA ARAUDIA.</b>	I. ERANSKINA.
<b>4. PLANAREN SISTEMATIZAZIOA: EGOERAREN AZTERKETA</b>	12
<b>5. PLANAREN SISTEMATIZAZIOA: PLANGINTZA</b>	13
5.1 Esku-hartzearen mailaketa: neurriak	14
5.2 Gizartean eta erakundeetan esku-hartzeko programa integralak	
1. ildo. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioa udal administrazioan zeharka sartzea	16
2. ildo. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre hartzea eta errotik kentzea	20
3. ildo. Emakumeak lan munduan eta eremu profesionalean erabat txertatzea	24
4. ildo. Kulturaren, ezagutzaren eta informazioaren eraikuntza ez-sexista	29
5. ildo. Emakumeen erabateko herritartasuna: erabakietan eta baliabideetan parte hartzea	33
<b>6. EZARTZEA ETA GAUZATZEA</b>	37
<b>7. EBALUAZIOA</b>	38
<b>I. ERANSKINA</b>	39



## II. ERANSKINA

### 1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA BERDINTASUNERAKO ALTSASUKO PLANA

#### 1.1. BERDINTASUN PLANAREN IZAERA

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Epe Ertaineko Altsasuko I. Udal Planaren asmoa da politika planteamendu normalizatu bat eta sistema egonkor bat, erakundeen eta gizartearen esku hartzea ahalbidetuko duena, eskaintzea, betiere gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko xedearekin.

Epe ertaineko lehenengo jarduera plan hau osatzeko, honako puntu hauek hartu dira abiapuntutzat:

1. Udalaren egoera aukera berdintasunaren alorrean. Udalaren egoera 2007an osatu eta aurkeztutako diagnostikoaren bitartez ezagutu ahal izan da (2007ko martxoaren 22ko 1769 sarrera).
2. Gaur egungo egoera Udalaren berdintasun politiken garapenari dagokionez.  
*NBIk Foru Erkidegoko Berdintasunerako I. Plana osatzeko diagnostikoan (2006-2010), bost adierazle proposatzen ditu, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako neurriak ezartzeko hainbat mailari lotuak.*
  - AB esparruetako esku-hartzeak Nafarroako udaletan.
  - Udalen eta emakumearen zinegotzigoaren arteko harremana.
  - Plantillan berdintasunerako teknikaria duten udalak.
  - Bateratzearen alde tokiko hitzarmenak egiteko egitasmoan parte hartzen duten udalak.
  - Berdintasun planak osatzen ari diren edo dagoeneko finkatuta dituzten udalak.

Bost adierazleak betetzen ditu Altsasuko Udalak, izan ere, azken urteotan Urteko Plangintza bat osatu eta onartu du berdintasunaren alorrean.


Gauza bakarra gelditzen zaio: epe ertainerako plan bat onartzea, hain zuzen ere. Plan horrek eremu estrategiko bat eskainiko dio udalari, alor horretan koherentziaz eta egonkortasunez jarduteko aukera emango diona.

Plan horren azken helburua Altsasuko gizartea da: herritarren garapenean eta ongizatean lagundu nahi du, eta horretarako, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bultzatzen ahaleginduko da.



ALTSASUKO HIRIBILDUKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA M.I. VILLA DE ALSASUA

Hala ere, planaren egituran bi esku-hartze eremu aipatuko ditugu: gizartea bera eta Udal administrazioa.



Beraz, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako planaren onespak udal administrazio osoaren lanean izango du eragina, udalaren jardun osoan eta udal administrazioak herritarrekin eta gizarte taldeekin duen harremanean txertatuko baitu generoaren irizpidea; era berean, Altsasuko herriaren gizarte bizitzan ere esku hartuko du, herria zentzu zabalenean hartuta, noski.



## 1.2. EPEAK ETA AURREKONTUA

Altsasuko Emakumeen eta Gizonezkoen Aukera Berdintasunerako I. Planak 2008-2011 bitartean iraungo du indarrean. Plana gauzatzeko denbora esparrua laster hasiko den legegaldiaren legezko epeak ezarria da, eta plana inplementatzeko aurrekontua ekitaldi bakoitzerako onartutako aurrekontuetan adierazten dena izango da; aurrekontu horrek, halaber, aukera emango du Urteko Jarduera Planak garatzeko, eta horietan zehaztuko da epe ertainerako plana.

## 1.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA BERDINTASUNERAKO PLANAREN NORMALIZAZIOA ALTSASUKO UDALEAN

- Altsasuko emakumeen egoeraren eta genero desberdintasunaren egoerari buruzko diagnostikoa' osatzeko hitzarmena.  
Emakumearen Batzordea, 2006ko maiatzak 22  
TGB, 2006ko uztailak 31
- Plan hau osatzeko gogoeta eta parte hartze proiektua garatzeko hitzarmena.  
Emakumearen Batzordea, 2007ko maiatzak 15  
TGB, 2007ko maiatzak 24
- Proposamen teknikoaren aurkezpena talde politikoen aurrean. 2007ko irailak 18  
Proposamen hori izan zen gogoeta taldeentzako oinarritzko agiria
- Proposamen teknikoari eta gogoeta taldeen ondorioei buruz osatutako agiriaren aurkezpena talde politikoen aurrean.  
Emakumearen Batzordea, 2007ko azaroak 21
- Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Altsasuko I. Udal Jarduera Planaren onespena  
Emakumearen Batzordea, 2008ko otsailak 14  
Osoko bilkura..... 2008ko apirila



#### 1.4. PLANA SISTEMATIZATZEKO FASEAK

KONPROMISOA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Erakunde legezketasuna, derrigortasuna eta zilegitasuna konpromisoak hartzearen mendekoak dira.</li></ul>
OINARRIAK	<ul style="list-style-type: none"><li>· Teoria eta arau esparrua ezagutzea</li><li>· Beste plan eta programa batzuekin bat etortzea</li></ul>
EGOERAREN AZTERKETA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Genero desberdintasunaren diagnostikoa</li><li>· Baliabideen mapa</li></ul>
PLANGINTZA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Sistematizazioa</li><li>· Koherentzia eta testuinguruan kokatzea</li><li>· Neurrien justifikazioa eta egokitasuna</li><li>· Bideragarritasun ekonomikoa eta operatiboa</li></ul>
EZARTZEA GAUZATZEA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Ezartzeko, gauzatzeko eta jarraipena egiteko egiturak.</li><li>· Urteko programak</li><li>· Komunikazioa eta publizitatea</li></ul>
EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"><li>· Sistemak, diseinuak eta emaitzak ebaluatu ahal izatea</li><li>· Emaitzen proiektzioa: atzeraelikadura</li></ul>



## 2. PLANAREN SISTEMATIZAZIOA: KONPROMISOA

### 2.1. KONPROMISO POLITIKOA

*Genero berdintasuna funtsezko eskubidea da, balio komuna EBren barruan, eta baita ezinbesteko baldintza ere EBren helburuak lortzeko: hazkundera, enpleguaren sorrera eta gizarte kohesioa. EBk garrantziko aurrerapenak egin ditu genero berdintasunaren alorrean, hainbat alderdiri esker: aukera berdintasunari buruzko legedia, genero ikuspegiaren inklusioa, emakumea sustatzeko neurri bereziak, ekimen programak, gizarte elkarrizketa eta gizarte zibilarekiko elkarrizketa.*

**HELBURU ESTRATEGIKOAK 2005-2009**

***Europa 2010: Berrikuntzarako, Oparotasunerako, Solidaritaterako eta Segurtasunerako Elkartea. Brusela, 2005.1.26***

Gaur egun, indarrean den legediak eskubide eta aukera berberak aitortzen dizkie emakumeei, bai gizartean bai eremu pertsonalean, eta gizonezkoiei; lortu da, beraz, berdintasun formala. Hala eta guztiz ere, gizartea aldatzeko helburuak -benetako berdintasuna- lortzeko, ordea, ez da nahikoa aitortzea eta legetan agertzea; aitzitik, prozesu konplexu eta mantsuagoa behar da, inondik ere, gauza jakina baita ohiturak eta kultura balioak (baita emakumeen benetako integrazioa zailtzen dutenak ere) errepikatu ohi direla eremu pribatuan zein publikoan.

Udalerrria da emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitza esparru nagusia, eta tokiko administrazioa da herritarren beharretatik, interesetatik eta kezketatik gertuen dagoen instantzia. Udalaren eremua da, zalantzarik gabe, prozesu hori bizkortzeko lekurik logikoena, eta horretarako, jokabideen aldaketa bultzatuko duten ekintza positiboak behar dira, eta baita haurren berdintasunean oinarritutako hezkuntzatik beretik estereotipoei aurre hartuko dieten ekimenak ere.

Udalak, agiri honen onspenaren bitartez, bere egiten du aldaketa prozesu hori eta liderraren papera betetzea proposatzen du, uste baitu emakumeek gizartean, lan munduan eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzea lortuz gero, izugarriko aurrerapena izango dela gure herriaren gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren garapenarentzat.

***Toki Erregimeneko Oinarri Arautzaileen 7/85 Legea***

*28. art.: "Emakumea sustatzeko eremuan, udalek beste Administrazio Publikoek burutzen dituzten jardueren jarduera osagarriak egin ditzakete".*

***Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa. 1985***

*44. art., Nafarroari esleitzen dio 'Gizarte Laguntza', 'Emakumea' eta 'Erkidegoaren garapena' alorren eskumena.*





### Alor honetan FUNTZIO HAUEK DAGOZKIO UDALARI:

- Administrazioaren kudeaketan emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioa beteko dela bermatu, edonolako bazterketa (zuzenekoa zein zeharkakoa) saihestuz; horretarako, arautzeko eta bere burua antolatzeko duen ahalmena aplikatuko du.
- Emakumea sustatzeko politika programatzeko eta antolatzeko, Udalak kontuan hartuko du onartutako Planak, egitura integral eta progresiboari esker, berak ezarritako eta onartutako helburuak lortzeko bidea erraztu beharko duela.
- Legearekin bat datorren kasuetan, nahitaez gauzatzeko ahalmena erabili, eta eskura dituen mekanismo guztiez baliatu, Udala kide den organismo eta erakundeen jarduna (Ikastetxeak, Osasun Kontseilua, Geriatria Zentroak, Patronatuak, Sakanako Mankomunitatea) zein herritarren jarduna ez dadin baztertzaileria izan eta emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna errespetatu dezan.
- Herritarrei alderdi aipagarrienei buruzko informazioa emateko eta sentsibilizatzeko kanpainak bultzatu: herritarrek emakumeen kontrako indarkeria baztertu dezaten, eta orobat lagundu dezaten koedukazioan, familia eta lan bizitza bateratzeko zereginetan, lanaren eta enpleguaren banaketan, emakumeek gizartean dute parte hartzean...
- Gizarteratzeko eta lan merkatuan txertatzeko prozesuetan emakumeek topatzen dituzten zailtasunei buruzko eskaerei erantzuteko zerbitzuak eskaini.
- Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen beharretan arreta jarri eta erantzuna eman.
- Udaleko sail eta erakundeei eskatu emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna oinarri hartuta trebatzeko zereginetan duten erantzukizuna onar dezaten, eta hori betetzen dela bermatu.
- Udaleko langileak eta erakunde autonomoetako langileak emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren alorrean trebatu daitezkeen bultzatu eta horretarako erraztasunak eman, eta, halaber, hori betetzen dela zaindu.

<b>UDALAREN ESKU-HARTZEA</b>	Jarduteko printzipioak:	Ekintza positiboa Zeharkakotasuna Parte hartzea
	Antolamendurako estrategiak:	Planen arteko uztardura Emakumearen/Berdintasunaren Batzordea Emakumearen/Berdintasunaren aldeko Kontseilua



ALTSASUKO HIRIBILDUKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA M.I. VILLA DE ALSASUA

Jarduerari dagozkion bi printzipio nagusi horiek arautzen dituzte, gaur egun, berdintasun politikak: horien zeharkakotasunak eta ekintza positiboaren legezkotasunak eta egokitasunak.

*Zeharkakotasuna: "Prozesu politikoak berrantolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, prozesu horietan parte hartu ohi duten eragileek genero berdintasunaren ikuspegia txerta dezaten beren politiketan eta fase guztietan". "...ez da behin bakarrik martxan jartzeko estrategia, prozesu osoan zehar iraungo duen zerbait baizik..."*

*Ekintza positiboa: "gizartearen jardunbideen edo sistemen ondoriozko bazterkeriak aldatzeko edo zuzentzeko aukera emango duten neurrien bitartez aukera berdintasuna ezartzeko estrategia".*

**Europako Batzordea. (1998)**

### **Udal administrazioak eta erakunde autonomoak Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Planarekin bat egitea**

Udalbatzak, Planaren onspenaren bitartez, Udal Administrazioko sail eta organismo guztiak uztartzen ditu planarekin.

Gainera, politika integral edo zeharkako politika ororekin gertatu ohi den bezala, Planak berak lotura formala zein informala bultzatzen du, Planaren helburuetara iristeko prozesuan laguntzen duten sail, organismo eta erakunde guztiakin akordioak, hitzarmenak izenpetuz, koordinatuz eta lankidetzan jardunez.

### **Berdintasunaren / Emakumearen Batzordea: Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako tokiko politika Udalaren antolamendu egituran txertatzea.**

Plana gauzatzeko prozesua eraginkorra izango bada, ezinbestekoa da, gure kasuan, Berdintasunaren /Emakumearen Batzordea: gune espezifiko bat da, udal organigramaren barruan, gai izango dena udalaren kudeaketaren mendeko alor guztietan ekintza positiboko neurriak sustatzeko, hitzartzeko eta bultzatzeko.

Alkatetzaren mende egongo da, zuzen-zuzenean, lanak zeharkako izaera baitu. Alkatetzan dagoen pertsona Batzorde guztietan egon daiteke presente, langile guztien buruzagitza hartzen du bere gain, bera baita Altsasuren kasuan gai guztiak ezagutzen dituen pertsona.



Batzorde hori osatzen duten guztiek bertan hartutako erabakiak beren talde politikoei, eta horien bitartez, baita gainerako Udal batzordeei ere, jakinarazteko erantzukizuna hartuko dute beren gain. Udal batzordeek, koordinatuta, praktikan jarri beharko dituzte konpromisoak edo horietara egokitu beharko dute beren jarduna (Zeharkarritasuna).

Berdintasunaren / Emakumearen Batzordearen funtzioak:

- Udalaren ekimen guztietan, eta eremu guztietan, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioa aplikatzen dela zaindu.
- Eskumena duten udal organoei ekintza positiboko estrategiak proposatu, eta emakumeak gizarteratzeko eta lan merkatuan txertatzeko prozesuen alde egingo duten zerbitzuak eta ekipamenduak bultzatu.
- Jardunerako planak eta proiektuak osatu eta Udal Batzordeari edo, hala dagokionean, Udalbatzari aurkeztu, eta baita aurrekontuetan horietarako behar den diru hornidura aurkeztu ere.
- Berariazko akordioak betetzen direla zaindu.
- Erreferente politikoa bihurtu gizarte elkarrizketaren aldeko politikan, bereziki Emakume Elkarteekin egiten diren elkarrizketetan, era horretara, talde horien parte hartzea bultzatu da eta, halaber, aurretik ezarritako helburuak iristeko konpromisoa lortuko da.

**Emakumeen eta Gizonen aukera berdintasunerako Kontseilua / Emakumearen Kontseilua: harreman politiko-administratiboa elkarte mugimenduarekin, organismoekin eta beste erakundeekin.**

Kontseilu horren sorrerari esker, eta gaiarekin lotura duten alderdi guztien akordiotik abiatuta, elkarlanean jardun ahal izango da, izan ere, azken helburua iristeko –gizonen eta emakumeen aukera berdintasuna– eta Plana bera lortzeko, ezinbestekoa izango da gizarte sektore guztien parte hartze etengabea.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Kontseiluak bere araudia edukiko du, Udalbatzan onartua. Organismo horren sorreran bitartez, normalizatu egingo da aurreko legealdietako jarduna, izan ere, urte horietan Emakumearen Batzordeak emakume taldeen, erakundeen eta Udaleko langile teknikoen parte hartzeari zabaltu zizkion ateak.



## **2.2. HERRITARREN KONPROMISOA ETA GIZARTE EKIMENA**

Gizarte zibilak eta gizarte ekimenak (emakume taldeak, gizabanakoak, sindikatuak, enpresa erakundeak, gizarte erakundeak, oro har) Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Kontseiluan parte hartuko dute, berdintasun politiken garapenean duten parte hartzea gauzatzeko, eta bertan proposamenak aurkeztu, proiektuak aholkatu eta akordioak eta gomendioak emango dituzte.

Bestalde, Udalak edo beste Erakunde Publiko batzuek bultzatutako emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako proiektu zehatzen garapenean parte hartu ahal izango dute, hainbat modutara: beren zerbitzu profesionalak emanez, informazioa emateko, trebatzeko eta sensibilizatzeko jardueren bitartez, eta, halaber, sexu arazoak direla-eta gertatzen diren bereizkerien aurrean edo emakumeen eskubideak urratzen direnean beren iritzia jendaurrean emanez.

Balio berezia dute erakunde feministen eta emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren alde lan egiten duten taldeen konpromisoek. Horren bitartez, Udala bera eta planifikazio eta ebaluazio lana herritarrengana –neurriak, erreformak eta programak behar eta eskatzen dituzten herritarrengana– hurbiltzeko aukera eskaintzeaz gainera, proiektuak gauzatzeko aukera ere eskaintzen da, eta orobat, hautemateei, aldaketei eta etengabe aldatzen ari diren emakumeen beharrei buruzko informazio guztiz baliagarria ematen da.

## **2.3. ERAKUNDEEN ETA GIZARTEAREN PARTE HARTZE PROZESUA, EMAKUME ETA GIZONEN AUKERA BERDINTASUNERAKO PLANA OSATZEKO**

Plan hau egitea onartu zenean, gizartearen eta erakundeen parte hartzea bultzatzeko prozesua martxan jartzea adostu zuen Udalak, bai diagnostikoa egiteko datu bilketan bai helburuen definizioan eta ekimenen proposamenean parte harteko, hain zuzen ere.

Parte hartze prozesu hori era honetara zehaztu da:

\* Lehenengo fasea: Diagnostikoa: “Genero desberdintasunei buruzko analisia eta diagnostikoa Altsasuko udalerrian” azterketa izan da plan honen abiapuntua. Azterketa hori egin eta beharrezko informazioa lortzeko, galdetegi bat egin zitzaion 345 emakumeri. Ondoren, bost lan talde osatu ziren: talde bat zazpi emakume gaztez osatua (16-30 urte); beste bat, bost emakume helduz osatua (30 urtetik gora); hirugarren taldean, Udaleko langile politikoez osatua (Emakumearen Batzordean parte hartzen duten lagunak barne), sei lagunek parte hartu zuten guztira, lau emakumek eta bi gizonak; beste talde bat udaleko langile teknikariek osatua, zazpi emakumek eta gizonetzko batez osatua; eta azken taldea, Altsasuko beste Erakunde batzuetako kideez, zazpi emakume eta gizonetzko batez, osatutako taldea izan zen. Guztira, hogeita hamalau lagunek parte hartu zuten: hogeita hamar emakume eta lau gizon.



\* Bigarren fasea: Osatzeko prozesua: Proposamen teknikoa egiteko, gogoeta prozesu bat jarri zen martxan. Bertan Altsasuko genero desberdintasunei buruzko azterketa lanean parte hartutako lan taldeek zein parte hartzaileek jardun zuten. Era honetara antolatu ziren bost lan taldeak: langile politikoak (bi lan saio, urriaren 2an eta 23an, hurrenez hurren: lehenean emakumezko bat eta bi gizonezko, eta bigarrenean, berriz, bi emakumezko eta bi gizonezko), langile teknikoak (lan saio bakarra, urriaren 18an, bi emakumez eta gizon batez osatua), emakume taldea (urriaren 16an, lau emakumez osatua), emakume gazteak (abenduaren 4an, hiru emakumez osatua) eta Tokiko hainbat Erakunde taldea (urriaren 18an, bost emakume eta gizonezko bat). Lan saioen helburua gogoeta egitea zen, eta baita bertan parte hatu zutenek konpromisoa hartzea ere, bai bana-banakoak bai elkartearen izenean, emakume eta gizonen aukera berdintasunerako lehenengo Planaren osaeran; hortaz, egindako azterketaren emaitzetan eta planaren zirriborroaren osaeran jarri zen batez ere arreta.

Plan honen jarraipenean, gauzatzean eta ebaluazioan izango den parte hartzea Berdintasunerako Kontseiluaren eta Jarraipenerako Batzorde Teknikoaren bitartez egingo dela aurreikusten da.

### **3. PLANAREN SISTEMATIZAZIOA: OINARRI JURIDIKOA ETA ARAUDIA. (I. ERANSKINA)**

3.1. Oinarri juridikoa: bi sexuen arteko aukera berdintasunaren alorreko araudiaren eta erakundearen eremua

3.2. Beste plan batzuekiko koherentzia

### **4. PLANAREN SISTEMATIZAZIOA: EGOERAREN AZTERKETA**

Arlo publikotik abiatuta gizartearen eremuan egin beharreko edozein esku-hartzeren oinarri politikoa diagnostikoa izaten da. Hala ere, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna lotzeko politikari dagokienez, hainbat zailtasun daude, izan ere:

a) genero arrazioen ondoriozko desberdintasunaren alderdi guztiak ezin dira kuantifikatu (rolak, estereotipoak, jarrerak, norbere buruaren hautematea, balioak eta gizarte harremanak)

b) kuantifikatu daitezkeen alderdiei dagokienez, berriz, ez dira beti datu estatistikoak edukitzen (ordezkaritza politikoa, soziala, akademikoa, ekonomikoa...).

Altsasuko Udalaren kasuan, azpimarratu behar dugu hainbat arlotan, hala nola, enplegua (enpresak, lan autonomoa), etxebizitza, hurbiltasun zerbitzuen eskaera, herritarrek jardueretara duten sarbidea eta parte hartzea, etab. ez dagoela udalerrriaren errealitateari buruzko ezagutza objektiboa ematen duen tresna estatistikorik (adierazleen diseinua eta informazioaren bilketa).

Informaziorik eza alde behintzat arintzeko, "Genero desberdintasunari buruzko azterketa eta diagnostikoa Altsasuko udalerrian" lana egiteko agindua eman zen. Lan hori 2007ko martxoaren 22an aurkeztu zen, 1769 erregistroko sarrerarekin.


Aurkeztutako agiria osorik kontsultatu badaiteke ere, proposatutako lan ildo bakoitzean hainbat ekintza programa burutzeko oinarrizko datuak aurkeztuko ditugu.

## 5. ALTSASUKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO PLANAREN SISTEMATIZAZIOA: PLANGINTZA

Plan hau egiteko, ildo eta programa integrez osatutako egitura hautatu da, eta ez jarduera alorrez osatua, beste Udaletako planetan egin ohi denez. Aukera hori hautatzeko arrazoi nagusia izan da egitura horrek aukera ematen duela:

- Bazterketak edo desberdintasunak jasaten dituen edo ekintza positiboen beharra duen gizarte eremuari erantzuten dion programazioa definitzeko.
- Udalean ditugun baliabide metodologiko guztiak eta antolamendu teknikoari, giza antolamenduari eta antolamendu ekonomikoari dagozkionak kontuan hartuta diseinatzeko jardunbideak.

Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako epe ertaineko lehenengo plana denez, programak egiteko denbora epeaz haratago luza daitekeen esparru orokor bat ezarri behar dela pentsatu da; hala eta guztiz ere, proposatutako ekimenen zerrenda modu irekian erredaktatuta denez, URTEKO JARDUERA PLANAK egin behar dira, eta horietan zehaztuko dira urtez urte lehentasuna duten ekimenak, horretarako aurrekontua, eragile arduradunak, urteko ebaluazioa.



## 5.1. ESKU-HARTZEAREN MAILAKETA: NEURRIAK

**BERDINTASUN POLITIKA** guztien azken helburua emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzea da

### AUKERA BERDINTASUNERAKO PLANA

<b>Helburu orokorra</b>	<b>Helburu espezifikoak:</b>	<b>Helburu operatiboak:</b>
<p>Balioen, boterearen eta erantzukizunen banaketa duala eta ezberdina egiten duen sistemaren bitartez oinordetutako eta helarazitako genero rolen ondorioz emakumeen eta gizonen artean gertatzen den bazterkeria (zuzeneko edo zeharkakoa) edo bereizkeria oro hautematea, eta horiei aurre hartzea eta ezabatzea, Udalak eskumena duen kasuetan, bederen.</p>	<p><b>jardunbide estrategikoak</b> Jardunbide bakoitzaren barruan definituko dira; edonola ere, proposatutako esku-hartze eremuetan berdintasun errearen eta eraginkorraren alorrean hobekuntzak lortzeko helburua dute, oro har.</p>	<p><b>programak eta ekimenak</b> Programak era antolatuan diseinatutako eta ezarritako ekimen eta baliabide multzo espezifikoetat hartu ditugu; inoiz ez loturarik edo koordinaziorik gabeko jardunbideen justaposiziotzat.  Esku hartzeko ekimen zehatzak dira, gai edo gertaera bakar bati begirakoak.</p>

Ildo estrategikoetan eta jarduera programetan adierazitako helburuetatik abiatuta proposatu diren jardunbide guztiak emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako politikan 'estrategia duala' esaten zaionaren eremuan garatuko dira. Estrategia horrek bi printzipio ditu, aurretik ere definitu ditugunak:

- Emakumeek eta gizek berdintasunaren alorrean dituzten behar praktiko guztiak asetzen lagun dezaketen eta politika espezifiko baten testuinguruan kokatuta dauden ekimen positiboak. Neurri horiek ez badakarte ere egoeraren egiturazko aldaketa, hobetu egiten dute egoera epe laburrean.
- Generoaren zeharkakotasuna: Lan printzipio hori da egokiena:
  - zuzen-zuzenean helburu orokorretan eragiten duelako, eta desberdintasun egoerak eragiten dituzten kausak zuzentzen ahalegintzen delako.
  - udalaren eta gizartearen jardun osoan berdintasun printzipioa kontuan hartzen duen jarduna sortzen duelako.

## 5.2 GIZARTEAN ETA ERAKUNDEETAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA INTEGRALAK

Programen eskemaren aurkezpena egingo da, ondoren.

	<b>Jardunbide estrategikoak</b>	<b>Programak</b>
2008-2011 jarduera plana	1. Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioa Udal Administrazioan zeharka sartzea	1. Politika orokorrak eta arloz arlokoak 2. Udal araudia eta agiri administratiboak 3. Baliabideak egokitzea, sortzea eta horiez hornitzea
	2. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre hartzea eta errotik ezabatzea	1. Gizarteak eta erakundeek kontzientzia hartzea eta sentsibilizatzea 2. Aurre hartzeko estrategiak garatzea 3. Kalitatezko zerbitzua egonkor bat bermatzea, iIndarkeria egoeratan esku hartzeko
Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna Altsasun	3. Emakumeak lan munduan erabat txertatzea eta alor horietan garatzea	1. Lan merkatuan guztiz txertatzeko informazioa eta formazioa 2. Emakumeak lan munduan sartzea eta haien lan baldintzak Hobetzea
	4. Kultura, ezagutza eta informazioa era ez-sexistan eraikitzea	1. Koedukazioa eta orientazio ez-sexita, hezkuntza ziklo guztietan 2. Kultura ez-sexista eraikitzea
	5. Emakumeen erabateko herritartasuna: erabakietan parte hartzea eta baliabideez gozatzea	1. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako udal araudia 2. Emakumeak erabateko herritartasunez jarduteko baldintzak 3. Emakumeek gizartean, politikan, ekonomian eta kulturen parte hartzea



## 1. Ildo estrategikoa

### EMAKUMEEN ETA GIZONEN AUKERA BERDINTASUNAREN PRINTZIBIOA UDAL ADMINISTRAZIOAN ZEHARKA SARTZEA.

*Generoaren zeharkakotasuna prozesu politiko zein teknikoa da, eta prozesu horrek ondorio funtzionalak eta egiturazkoak ditu erabaki politikoak hartzeko prozesuen berrantolaketan, hobekuntzan, garapenean eta ebaluazioan...*

*Azkenik, prozeduretan aldaketak egin behar dira, politikak osatzeko ikuspegiak berriro aztertzeko prozesuarekin bat etorriko diren aldaketak, hain zuzen. Generoaren zeharkakotasunaren espezialista taldea (EGS-MS), Europar Batzordea, 1998ko maiatza.*

#### GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA:

- Herritarrek modu "egokian" ezagutzen dituzten udal zerbitzuak (%70etik gora)

	Ezagutza		Erabilera			
	Bai	Ez	Inoiz ez, ia inoiz ez	Batzuetan	Nahiko sarri	Askotan
Emakumearen Bilgunea	%64,3	%35,7	%70,6	%24,7	%2,6	%2,2

	Balorazioa	Oso txarra	Txarra	Erdipurdikoa	Ona	Oso ona
Emakumearen Bilgunea		%0	%1,3	%11,4	%60,8	%26,6

*Emakumeei egindako galdetegia Diagnostikoa: AECUO*

- Udal langile teknikoez osatutako gogoeta taldea:

*"Zailtasunak daude sailak eta genero zeharkakotasuna koordinatzeko. Azken batean, Emakumearen Bilgunearena da erantzukizuna, eta askotan, garrantzi txikiagoko gaitzat hartzen da udal administrazioaren barruan. Berdintasunaren alorrean egiten diren jarduerak gehienak herritarrei begira egiten dira, eta ez barrura begira."*

Aurrera begira egin daitekeenari dagokionez, proposamenen ildoak arau bidez arautzeari begirakoak izan beharko lukete, udal administrazioan generoaren zeharkakotasuna txertatzeko, Altsasuko gizartearen egoera erreala gogoan hartzeko, herritarrek berdintasunari eta erantzunkidetasunari buruz sentsibilizatzeko, berdintasunaren alorrean dauden legeak zabaltzeko, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren alorreko formazioari dagokion barne prozesuarekin jarraitu eta sakontzeko, hizkuntza ez-sexistaren erabilera zaintzeko, eta orobat, udalerriko beste erakunde batzuen erreferentziazko eredu izateko.



**HELBURUA:** Generoaren ikuspegia udal administrazioaren sail guztietan txertatzea, eta horretarako, bertako egitura, antolamendua eta prozedurak egokitzea, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioa aplikatu ahal izateko, bai berariazko politiketan bai helburu bereko ekintza positiboetan.

**PROGRAMAK:** 1. POLITIKA OROKORRAK ETA ARLOZ ARLOKOAK  
2. UDAL ARAUDIA ETA AGIRI ADMINISTRATIBOAK  
3. BALIABIDEAK EGOKITZEA, SORTZEA ETA HORIEZ HORNITZEA

<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>1. PROGRAMA</b> <b>POLITIKA OROKORRAK ETA</b> <b>ARLOZ ARLOKOAK</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOA:</b> Plangintza egiteko, gauzatzeko, ebaluatzeko, komunikatzeko eta publizitatea egiteko prozesuan genero ikuspegia eta bi sexuen arteko berdintasunaren aldeko neurri-programak txertatzeko metodologiak era sistematikoan finkatzea.</p>	<p>1- Emakumearen/Berdintasunaren Batzordeari eutsi. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren udal politika proposatzea, inplementatzea eta horretan buru izatea izango da batzorde horren egitekoa.</p> <p>2- Udalaren plangintza eta proiektu guztiek Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Plan honi dagokionez koherenteak izateko beharrezkoa den adostasun politikoa lortu.</p> <p>3- Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Plana gauzatzeko sail eta erakunde bakoitzari zer eskumen dagozkion jakinarazi, politika orokorretan eta arloz arlokoetan generoaren ikuspegia era progresiboan sartzeko helburuarekin bat eginez, betiere.</p> <p>4- Genero adierazleen definizioa eta politika eta plangintza orokor eta arloz arlokoen egokitasuna, horiek ikertzeko, horien plangintza egiteko, aurrera eramateko eta ebaluatzeko.</p> <p>5- Ezkutuko sexismoa eta bereizkeria, ikusezintasuna edo erakundeetako komunikazioan, publizitatean, zabalkuntzan eta edizioan emakumeen azpiidentifikazioa ezabatzeko gidalerro komunak ezarri.</p> <p>6- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako neurriak aplikatzeko, sail guztietara jardunbide egokiak helarazi.</p> <p>7- Urtero, txosten bat egin, plana administrazioiko sail guztiek eta erakunde autonomoek zenbateraino betetzen duten azaltzeko.</p> <p>8- Lankidetzan jardun, bereziki Berdintasunerako Nafarroako Institutuarekin, eta emakumearen egoera ezagutzeko eztabaida gunetan eta topalekuetan parte hartu, baita esperientzien eta jardunbide egokien trukea ahalbidetzen dutenetan ere.</p>

	9- Berdintasunerako eta emakumeen aldeko baliabideak antolatzeko eta finantzatzeko sistema elkartua bultzatu (aholkularitza tekniko berdintasun politiketan, aholkularitza juridikoa, psikologikoa, soziala, lanaren arlokoa...)
<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>2. PROGRAMA UDAL ARAUDIA ETA ADMINISTRAZIOKO DOKUMENTUAK</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOA:</b> Udal legedia eta administrazioko dokumentazioa era sistematikoan berrikustea eta emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipiora egokitzea</p>	<p>1- Indarrean den araudia eta prozedurak era sistematikoan berrikusi, sexismoak eta ezkutuko bereizkeriak ezabatzeko.</p> <p>2- Proiektuan den udal araudiak generoaren alorrean izango duen eraginaren ebaluazioa egin.</p> <p>3- Lan eskaintza publiko guztiak, lanpostu zerrendak eta plantilla organikoak era sistematikoan berrikusi, sexismoak eta ezkutuko edo zeharreko bereizkeriak ezabatzeko, eta baita ordainsarrietan dauden desberdintasunak desagerrarazteko ere.</p> <p>4- Laguntzetarako, diru laguntzetarako eta hitzarmenentarako deialdiak berrikusi, sexismoak edo ezkutuko edo zeharreko bereizkeriak ezabatzeko xedez.</p> <p>5- Diru laguntzen deialdietara sarbidea izateko hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzeko konpromisoa berrikusteko eta kontrolatzeko prozedura bat ezarri.</p> <p>6- Udal administrazioan erabilera normalizatua duten agiri guztiak berrikusi, sexismoak eta ezkutuko edo zeharkako bereizkeriak ezabatzeko.</p> <p>7- Gomendio agiri bat osatu, eremu juridikoan, administratiboan eta araugintzari dagokionean hizkuntza ez-sexista erabiltzeko irizpideak bateratzeko.</p>



<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>3. PROGRAMA</b> <b>UDAL BALIABIDEAK</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOA:</b> Udal administrazioak eta bere erakunde autonomoek berdintasuna aplikatzeko dituzten baliabide instrumentalak, finantzarioak eta giza baliabideak aztertzea, eratzea eta egokitzea.</p>	<p>1- Talde politikoen arduradunak sentsibilizatu, jardunaldien, tailerren, eta abarren bitartez.</p> <p>2- Aukera berdintasunean trebatzeko, sexu eta genero arrazoiengatik bereizkeriaren kontra jarduteko eta zeharkakotasunean oinarritutako gaur egungo ildoari jarraitu, eta langileek horretan parte har dezaten erraztasunak eman eta eskatu.</p> <p>3- Azterketa, galdetegi eta erregistro estatistiko guztietan sexuaren aldagaia era sistematikoan sartu, eta baita generoaren aldagai diferentzialak ere.</p> <p>4- Udal Administrazioarako oposizioetako gai zerrendetan emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren gaia erantsi, plazaren mailara egokituta, noski.</p> <p>5- Emakumeek hainbat sektoretan eta alorretan duten egoerari buruz egin behar diren ikerketak egin.</p> <p>6- Aurkeztutako eskaeren arretarako gizarte baliabideei buruz egin beharreko diagnostiko azterketak egin.</p> <p>7- Emakumeek Udalak eskainitako zerbitzuen gainean duten pertzepzioari buruzko galdeketak egin.</p>

## 2. Ildo estrategikoa

### EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE HARTZEA ETA ERROTIK KENTZEA.

*Kasu honetan, indarkeria sexistatzat edo genero indarkeriatzat jotzen da indarkeria edo eraso egintza oro, sexu baten nagusigoan oinarritua, kalte fisiko, sexual edo morala dakarrena edo ekar dezakeena; horren barruan sartzen dira, halaber, halako egintzak egiteko mehatxuak eta derrigortzea edo askatasunaz era arbitrarioan gabetzea, jendaurrean nahiz bizitza familiar edo pribatuan.*

**22/2002 FORU LEGEA, uztailaren 2koa, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzkoa**

#### GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA:

- Altsasuko emakumeen erdien ustez, indarkeriaren biktima izan diren emakumeei egindako arreta hobetu egin da hainbat alderditan; %10ek hobetu egin dela diote eta %15ek ez dela batere hobetu. Erantzun aniztasun horrek adierazten du informazio gutxi dagoela egoerari eta dauden baliabideei buruz.
- Emakume helduen eta gazteen gogoeta taldeak: horien erantzunak aditzera ematen du, halaber, gaiari buruzko ezjakintasuna nabarmena dela, eta indarkeria emakume helduei eta zailtasunak dituzten gizarte eta ekonomia sektoreei bakarrik eragiten dienaren ustea dagoela: 'Emakumeen kontrako indarkeriari dagokionez, taldeak egiaztatu zuen gai hori ikusezina zela oraindik Altsasun, nahiz eta ez duten zalantzan jartzen existitzen denik. "Egongo da, seguru".
- Udalaren funtzionamenduari dagokionez, elkarlanean dihardute, estu, Emakumearen Biltegiak eta Udaltzaingoak, egokitu egin da salaketak hartzeko protokoloa eta trebatu egin dira arretaren ardura duten langileak.  
"Jardunbideak eta protokoloa luzeegiak dira, Iruñera joan behar da, lehenbizi deitu, hitzordua eskatu..., urrats gehiegi. Salaketa bakarra jaso daiteke, eta gehienetan, kutxa batean gelditzen da artxibatuta. Erraztasunak eman behar dira, izapideak murriztu eta zuzenagoak izan behar dute." "Gainera, Iruñera joateko jendea behar dute. Arreta horiek guztiak Altsasun egin beharko lirateke. Gehienetan, baliabiderik gabeko pertsonak dira, eta bakarrik egoten dira; horregatik, haiengandik hurbilago egon beharko litzateke."
- Alor horretako irtenbideen artean, gizartearen sentsibilizazioa aipatzen da, herritarren pentsaera itxia baita, oro har.

**HELBURUA:** Emakumeen oinarritzko eskubideak eta askatasunak bermatzea, eta horretarako, haien kontrako indarkeriari aurre hartzea eta errotik eraztea, ez bakarrik etxearen eremuan (indarkeria fisikoa, psikikoa, sexuala, ekonomikoa) edo sexu erasoaren bitartez egiten denari, baita beste zenbait eremutan egiten denari ere, hala nola, zenbait kultura produktutan, publizitatean, komunikabideetan eta teknologia berrietan egiten den jazarpen morala, gune publikoetan xaxatzea, hizkuntzaren erabilera sextaren ondoriozkoa eta generoko indarkeria ekonomikoa.

**PROGRAMAK:** 1. GIZARTEAK ETA ERAKUNDEEK KONTZIENTZIA HARTZEA ETA SENTSIBILIZATZEA  
2. AURRE HARTZEKO ESTRATEGIAK  
3. INDARKERIA EGOERATAN ESKU HARTZEKO, KALITATEZKO ZERBITZU EGONKOR BAT BERMATZEA

<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>1. PROGRAMA GIZARTEAK ETA ERAKUNDEEK KONTZIENTZIA HARTZEA ETA SENTSIBILIZATZEA</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOA:</b> Emakumeen kontrako indarkeria sektore guztietan (talde politikoak, gizarte eragileak, gizonak, gazteak, emakumeak), modu orokor zein espezifikoa, baztertu dadin, informazioa ematea, kontzientzia hartzea eta sentsibilizatzea</p>	<p>1- Emakumeen kontrako indarkeria kontzeptuari, indarkeria motei eta indarkeria jasaten duten emakumeengan dituen eraginei buruzko informazio kanpainak egin.</p> <p>2- Indarrean den legediari eta dauden baliabideei buruzko informazio kanpainak egin.</p> <p>3- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean tolerante izatea indarkeria mota bat dela eta horrelako fenomenoek irauteko aukera ematen dutela azpimarratzen duten kontzientziazio kanpainak diseinatu eta aurrera eraman.</p> <p>4- Emakumeen kontrako indarkeriaz jarduten duten gizonen irudi bikoitza -gizartean dutena eta familian dutena- erakusteko kanpainak egin.</p> <p>5- Herritarrei hainbat alorri buruzko informazioa eman, hala nola, tratu sexistak eta baztertzailak eragiten dituzten, emakumeak ikusezin bihurtzen dituzten, pertsonaren duintasunaren kontra eraso egiten duten edo emakumeen kontrako indarkeria areagotzen duten hizkuntzaren erabilerei eta kultura produktuei buruzkoa, jarrera kritikoak har ditzaten.</p> <p>6- Azaroaren 25ean Emakumeen Aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna ospatu: adierazpen ofiziala egin eta beste erakundeei atxikitze eskakizuna egin.</p> <p>7- Gizartearen, osasunaren, hezkuntzaren, lanaren, ekonomiaren, kulturaren... alorreko eragileek emakumeen aurkako genero indarkeriaren kontra era aktiboan borrokatu dezaten, sentsibilizatu, kontzientziatu eta material orientatzaileak banatu.</p> <p>8- Sentsibilizazio estrategia espezifikoa diseinatu, indarkeria mota horren aurrean gizarte presio berezia duten edo kultura legitimazio berezia duten gizarte inguruneetako emakumeentzat, jarrera aktiboak har ditzaten indarkeria mota horren kontra.</p>

	<p>9- Laguntza eman emakumeen aurkako indarkeriaren kontra Altsasun diharduten gizarte ekimeneko taldeei.</p> <p>10- Gazteriaren Batzordearekin lankidetzan, emakumeen kontrako indarkeriaren arazoa lantzen duten eta hura era aktiboan baztertzeko beharra lantzen duten gazte jarduerak prestatu.</p> <p>11- Gazteen artean ere genero indarkeria badela erakusten duten materialak osatu eta/edo banatu gazteen artean.</p>
<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>2. PROGRAMA AURRE HARTZEKO ESTRATEGIAK</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOA:</b> Aurre hartzeko programak eta proiektuak inplementatzea, genero indarkeriaren kontra erabateko babes emateko neurri buruzko 1/2004 Lege Organikoaren eta indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko 22/2002 Foru Legearen garapenaren bitartez</p>	<p>1- Hezkuntza komunitatearen formazioa (eskola kontseiluak, gurasoen elkarteak, ikasleen elkarteak), beren edukietan genero indarkeriari aurre egiteko estrategiak sar ditzaten.</p> <p>2- Helduen eskolari emakumeen kontrako genero indarkeriaren prebentzioari buruzko modulu bereziak eskaintzea.</p> <p>3- Hainbat gairi buruzko prestakuntza eta gogoeta egiteko guneak abian jarri eta dinamizatu: "generoa eta nortasuna", "lotura afektiboak eta pertsona arteko harremanak", "autoestimua", "eguneroko bizitzako gatazkei nola aurre hartu", "emakumeen kontrako indarkeria motak", "komunitateak genero indarkeriaren arretarako eskura dituen baliabideak ezagutu", etab.</p> <p>4. Emakume taldeen arteko topaketak antolatu, emakumeen kontrako genero indarkeriaren prebentzioari buruz ikasitakoa eta lortutako esperientzia elkar trukatzeko.</p> <p>5- Gizonezkoei zuzendutako proiektuak aurrera eraman, genero indarkeriarekin zuzenean edo zeharka lotzen diren nortasun osagaiak identifikatzeko eta dagozkion aldaketak egin ahal izateko.</p> <p>6- Beste gizarte erakunde eta organizazioekin batera jardun, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko kanpainetan, jardunaldietan, foroetan...</p> <p>7- Genero indarkeriari buruzko dokumentaziorako eta informazio espezializaturako sarbidea erraztu.</p>



<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>3. PROGRAMA</b> <b>INDARKERIA EGOERATAN</b> <b>ESKU HARTZEKO,</b> <b>KALITATEZKO ZERBITZU</b> <b>EGONKOR BAT BERMATZEA</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOA:</b> Udalak, eskura dituen baliabideekin eta eskumenekin, genero indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta egokia ematea, baliabideen arteko koordinazioa bultzatuz</p>	<p>1- Udalean lan egiten duten eta emakumeen kontrako indarkeria kasuetan parte hartzen duten erakundeez osatutako koordinazio talde baten sorrera bultzatu, lehenengo arreta eta jarraipena eraginkorragoa izan dadin; talde horrek eskuratutako informazioa emango dio Udalari eta hobetzeko neurriak proposatuko dizkio.</p> <p>2- Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako prozedura bat diseinatu Altsasurako, Nafarroako Gobernuaren Jarduera Integralaren Protokoloari lotuta betiere.</p> <p>3- Nafarroako Gobernuak INAIren bitartez eskaintzen dituen zerbitzuekin koordinazioan jardun.</p> <p>4- Indarkeriaren biktima diren emakumeei harrera egiten dieten baliabideek informazioa biltzeko erabiltzen dituzten irizpideak, tresnak eta aldagaiak bateratu.</p> <p>5- Emakumeei emandako laguntzaren kalitatea ebaluatzeko aukera emango duten adierazleak diseinatu, eta dagozkion hobekuntzak eransteko aukera emango duten urteko txostena egin.</p> <p>6- Kasuak goizik hautemateko, horiei heltzeko eta horien jarraipena egiteko jarraibideak eskainiko dituen eta profesionalen jarduera egituratuko duen protokolo berezia osatu.</p> <p>7- Zerbitzu horiei emakumeen kontrako indarkeriaren fenomenoari buruzko ezagutza eta gaiari heltzeko estrategietan sakontzeko aukera emango dieten prestakuntza ekimenak antolatu.</p> <p>8- Aholkularitza juridikoaren zerbitzua sendotu eta laguntza psikologikorako zerbitzu egonkorra sortu, emakumeei indarkeria matxistaren ondorioak gainditzeko laguntzeko.</p> <p>9- Emakumeen kontrako genero indarkeria egoera hausteko prozesuan diren emakumeei lehenetsua eman Udalak kudeatzen dituen baliabideak eskuratzeko (gizarte zerbitzuak, haurtzaindegiak, jardueren eskaintza...).</p> <p>10- Indarkeriaren ondoriozko krisi egoeratan, lehenetsua eman 'Larrialdi sozialerako laguntzen' deialdietarako, harik eta prestazio arautuak kudeatu arte.</p> <p>11- Salaketa neurriak hartu eta legezko ekintzak abian jarri publizitate sexistaren, bereizlearen, pertsonaren duintasunari kalte egiten dionaren edo genero indarkeriaren apologia egiten duenaren kontra.</p>





### 3. Ildo estrategikoa

#### EMAKUMEAK LAN MUNDUAN ETA EREMU PROFESIONALEAN ERABAT TXERTATZEA.

*Emakumea lan merkatuan sartu da, baina ez da etxeko zereginen eta familiaren alorreko erantzukizunen banaketa proportzionalik egin, eta indarrean iraun dute prestakuntzaren, okupazioaren eta bizitzaren alorreko aukerak baldintzatzen dituzten faktore soziokulturalek eta familiakoek; horrek guztiak zaildu egiten du enplegurako sarbidea, bertan irauteko aukera eta garapen profesionala. Gainera,... lan merkatuaren errealitate praktikoak nabarmen uzten du 'egitatezko bereizkeria' egoera ugari dagoela.*

#### NAFARROAKO III. ENPLEGU PLANA (2005-2007)

#### GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA:

- Zure ustez, eskualdeko emakumeek zailtasun handiagoa al dute enplegu ordaindua lortzeko?
  - % 83,5 Bai: kontratazioan dauden bereizkeriaren, familia zamen, hautatutako ikasketen ondorioz.
  - % 15,9 Ez: hori adierazi zuten emakumeek ez zuten azalpenik edo arrazoirik eman (BERDINTASUNAREN IRUDIKERIA)

#### Langabezia sexuaren eta maila akademikoaren arabera. Altsasu

MAILA AKADEMIKOA	GIZ.	EMA.	GUZTIRA	%
Ikasketarik gabe	3	2	5	0,98
Lehen Hezkuntza	38	36	74	14,54
LHko programak, titulaziorik gabe	0	1	1	0,20
Bigarren Hezkuntzako 1. etapa	87	163	250	49,12
LHko programak, Big. Hezkuntzaren 1. etaparekin	0	1	1	0,20
Bigarren Hezkuntzako 2. etapa	21	84	105	20,63
LHko programak, Big. Hezkuntzaren 2. etapa	0	0	0	0,00
Goi mailako LH	5	24	29	5,70

Iturria: INEM. Enplegu estatistika, 2007ko uztaila

Emakumeak dira:

- langabeen diren biztanleen %67,38
- unibertsitate mailako titulua duten langabeen %72,72
- goi mailako LH titulua duten langabeen %82,75
- 4. mailako DBH duten langabeen %80
- 2. mailako DBH duten langabeen %65,2

Beste irakaskuntza batzuk, Batxilergoarekin	0	0	0	0,00
Unibertsitate mailako Irakaskuntza, 1. eta 2. Zikloa	12	32	44	8,64
Lanbide Espezializazioa	0	0	0	0,00
Unibertsitate mailako Irakaskuntza, 3. zikloa	0	0	0	0,00
Esleitu gabe	0	0	0	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>166</b>	<b>343</b>	<b>509</b>	<b>100,00</b>

#### Langabezia sexuaren eta lanbide kategoriaren arabera. Altsasu

LANBIDE KATEGORIAK	GIZ.	EMA.	GUZTIRA	%
Zuzendariak	2	0	2	0,39
Teknikariak / Zientifikoak	11	31	42	8,25
Teknikariak / Laguntza Profesionalak	12	21	33	6,48
Administrariak	2	34	36	7,07
Zerbitzuetako langileak	3	48	51	10,02
Nekazaritzako langileak	1	1	2	0,39
Langile adituak	22	5	27	5,30
Makinetako langileak	14	4	18	3,54
Langile ez gaituak	99	199	298	58,55
Indar Armatuak	0	0	0	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>166</b>	<b>343</b>	<b>509</b>	<b>100,00</b>

Iturria: INEM. Enplegu estatistika, 2007ko uztaila

Emakumeak dira:

- langabeen diren biztanleen %67,38
- zerbitzuen alorreko langabetuen %94,11
- lan administratiboan langabeen direnen %94,44

Gizonen eskaerarik ez duten sektoreak

- lan kualifikatuan langabeen diren biztanleen %18,51

Emakumezkoaren eskaerarik ez duen sektorea

KONTRATUAK GUZTIRA	594
KONTRATU MUGAGABEAK GUZTIRA	54
25 URTETIK BEHERAKO GIZONAK	42
25 URTETIK BEHERAKO EMAKUMEAK	43
25 URTETIK GORAKO GIZONAK	124
25 URTETIK GORAKO EMAKUMEAK	300
NEKAZARITZA	13
INDUSTRIA	139
ERAIKUNTZA	34
ZERBITZUAK	259
AURRETIK LANIK GABE	64
GUZTIRA	509
AURREKO HILEAN	504
ALDEA	5

**HELBURUA:** Emakumeek autonomia ekonomikoa edukitzeko eta beren garapen pertsonalerako eta profesionalerako duten eskubidea bermatzea

**PROGRAMAK:** 1. LAN MERKATUAN ERABAT TXERTATZEKO INFORMAZIOA ETA FORMAZIOA  
2. EMAKUMEAK LAN MERKATUAN TXERTATZEA ETA LAN BALDINTZAK HOBETZEA

<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<b>1. PROGRAMA: LAN MERKATUAN ERABAT TXERTATZEKO INFORMAZIOA ETA FORMAZIOA</b>	<p>1- Altsasuko ikastetxeetako ikasleek hautatzen dituzten ikasketak ahal bezain zehatzen ezagutu (DBH, Batxilergoa, LH eta goi mailako ikasketak).</p> <p>2- Irakasleak sentsibilizatu eta lan munduaren tratamendu ez-sexitari buruzko formazioa proposatu, hezkuntza maila guztietan.</p> <p>3- Ikasleen artean tradizionalak ez diren aukerak eta irtenbide profesionalak askotarikotzeko jarduerak egiten jarraitu.</p>



<p><b>HELBURU OPERATIBOA:</b> Bi sexuen artean erabateko aukera berdintasuna lortzeko aldaketak bultzatzea, bai formazioaren alorrari bai lan esparruan duen eraginari dagokionez, formazio-hezkuntza proiektuak burutzen dituzten eremu guztietan.</p>	<p>4- Hezkuntzaren arloko komunitatea sentsibilizatu eta informazioa eman, bi sexuak lan munduan txertatzeari eta garatzeari dagokionez.</p> <p>5- Sare profesional bat bultzatu, formazioaren-hezkuntzaren komunitateak eta enpleguarekin lotura duten zerbitzuek edo eragileek osatua.</p> <p>6- Baliabide teknikoak eta giza baliabideak erraztu eta eskaini beste erakunde batzuei, emakumeen formazioa sustatzeko teknologia berrien erabilerari eta aplikazioari dagokionez.</p> <p>7- Autonomia Erkidegoko erakundeekin lankidetzan jardun, emakumeak enpleguaren eta autoenpleguaren sorgune berrietako lanbideetan eta okupazioetan gaitu daitezen.</p> <p>8- Emakumeei enplegua era aktiboan bilatzeko eta lider bihurtzeko trebetasun pertsonalak eta sozialak berenganatzen lagunduko dieten formazio eta enplegu programa espezifikokoak antolatu.</p>
<p><i>Programa</i></p>	<p><i>Proposatutako ekimenak</i></p>
<p><b>2. PROGRAMA</b> <b>EMAKUMEAK LAN</b> <b>MERKATUAN TXERTATZEA</b> <b>ETA LAN BALDINTZAK</b> <b>HOBETZEA</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOAK:</b> 1. Emakumeei, zailtasun gehien dituztenei bereziki, lan merkaturako sarbidea erraztea. 2. Berdintasunean eta zuzentasunean oinarritutako gizarte ereduera</p>	<p>1- Lankidetzan jardun beste autonomia erkidegoetako edo estatuko beste erakunde batzuekin, emakumeak formazioan eta lan munduan txertatzea helburu duten proiektuetan.</p> <p>2- Altsasu kide den udalaz gaindiko erakundeek (CEDERNA-GARALUR; Sakanako Manokomunitatea) jakinarazi zer behar ikusi diren eta jarduteko proposamenak egin.</p> <p>3- Altsasuko emakume langileak ikusgai bihurtu.</p> <p>4- Enpresaburuak sentsibilizatu, bere enpresetan emakumeak kontratatzeari dagokionez.</p> <p>5- Sexuaren aldagaia sartu enpresei buruzko udal datu-baseetan, emakumeen enpresa ehuna zein den ezagutzeko.</p> <p>6- Udalak emakumezko enpresaburuaren interesak ezagutu ondoren, horiei buruzko informazioa zabaldu.</p> <p>7- Enpresek emakumeen kontratazioaren alorrean burututako jardunbide egokiak zabaldu.</p> <p>8- Enpleguaren, formazioaren eta lan harremanekin zerikusia duten emakumeenganako bereizkeriaren datu nabarmenak bildu eta ezagutzera eman, eta baita bereizkeria horiek zuzentzeko ezinbesteko neurri gisa garatu beharreko ekimen positiboak ere.</p>



<p>eboluzionatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>▪ zaintzaren balioa funtsezkotzat hartzea beren buruaren garapenerako</li><li>▪ bizitza pertsonala, familiarra eta lanaren alorrekoa benetan eta eraginkortasunez bateratzea</li><li>▪ erakundeek eta pertsonak lanaren banaketan eta betetzean duten erantzukidetasuna onartzea.</li></ul>	<p>9- Amatasuna eta aitatasuna betetzeko lan baimenak, lizentziak eta utzialdiak arautzen dituen araudia zabalitzen jarraitu.</p> <p>10- Adiskidetzearen aldeko Udal Hitzarmena sendotu eta beste gizarte eragileengana zabaldu, dagozkion jardunbideei eutsiz:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>PLxC delakoa ebaluatu (2005-2007)</li><li>II. PLxC diseinatu</li><li>Erakunde guztiak inplikatu eta horietara zabaldu.</li></ul> <p>11- Sindikatuetakoko ordezkariak aukera berdintasunaren alorreko formazioa eman, erantzukizuneko lanpostuak modu orekatuan banatu daitezkeen eta beren organoetan erabakiak orekaz har ditzaten; talde hitzarmenaren prozesu guztietan eta jarduera orotan emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna eraginkortasunez ezartzen dela zaindu, eta sexuagatiko bereizkeriaren alorrean esku hartu.</p> <p>12- Emakumeek lan jardueran, produkzio prozesuetan eta gizarte antolamenduan historian zehar izan duten parte hartzea eta egin dituzten ekarpenak aztertu eta horien berri eman.</p>
--	---

#### 4. ildo estrategikoa

### KULTURAREN, EZAGUTZAREN ETA INFORMAZIOAREN ERAIKUNTZA EZ-SEXISTA

*KULTURA: Herri edo zibilizazio bateko gizarte-egitura eta ezagutza edo fenomeno zientifiko, artistiko edo erlijiosoen multzoa.*

#### HARLUXET HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA

*Gizartean nagusi diren balioen eta sinismenen multzoa da gure jokabideen euskarri nagusia. Halaber, eredu berrien eta jokabide berrien sorreraren ondorioz, aldatetarako gertatzen dira gizartean nagusi diren balioetan. Gertatzen diren aldaketak horiek gorabehera, eta kontraesana badirudi ere, genero sistema tradizionalak bere horretan irauten du, funtsean, familiaren, hezkuntza sistemaren eta komunikabideen bitartez egiten den sozializazio prozesuan gizonen eta emakumeen nortasunak izan beharko lukeenaren eredu estereotipatuak helarazten dituztelako oraindik ere, gaitasun pertsonalak kontuan hartu gabe, eta planteamendu horiek emakumei buruz duten bereizkeria eta gutxiespenari eutsiz. Gaur egun, oraindik ere, gizonen eta emakumeen munduen artean, hau da, genero bati eta besteari esleitzen zaioaren artean dagoen bereizkuntza bat dator bizitza publikoaren eta pribatuaren artean gertatzen denarekin, eta identifikazio horixe da, hain zuzen ere, bizitzaren esparru guztietan herritar emakumezko eta gizonzko erantzukideez osatutako gizartearen bidean aurrera egiteko oztopo nagusietako bat.*

**EAEko EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOKO III. PLANA** (3. arloa: Aukera berdintasuna garatzeko kultura)

#### GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA:

##### ➤ ETXEKO LANAK ETA ZAINZA LANAK:

ALDAGAIEN GURUTZATZEA:		BERRIRO KODETUTAKO ADINA. Zutabearen %				
		16-29 urte	30-44 urte	45-59 urte	60-79 urte	80 urtetik gora
Egunero, batez beste, zenbat orduz jarduten duzu etxe lanetan edo zaintza lanetan?	12 eta gehiago	%1,1	%14,9	%4,8	%3,4	%,0,0
	8-12	%4,3	%10,6	%19,3	%20,7	%,0,0
	4-8	%7,4	%43,6	%56,6	%39,7	%31,3
	4 baino gutxiago	%81,9	%29,8	%19,3	%34,5	%62,5
	Batere ez	%5,3	%1,1	%,0,0	%1,7	%6,3
	Ed / Ee	%,0,0	%,0,0	%,0,0	%,0,0	%,0,0
	Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Nork gehiagok egiten ditu etxeko lanak eta zaintza lanak?

	Bai		Ez		Guztira	
Inork ez, nik bakarrik egiten ditut	126	%36,5	219	63,5%	345	%100
Alabak	52	15,1	293	84,9	345	100
Semeak	28	8,1	317	91,9	345	100
Senarrak / Mutil lagunak	124	35,9	221	64,1	345	100
Aitak / Aitagarrebak	52	15,1	293	84,9	345	100
Amak / Amaginarrebak	86	24,9	259	75,1	345	100
Anaiak	14	4,1	331	95,9	345	100
Arrebak/ahizpak	21	6,1	324	93,9	345	100
Amonak	11	3,2	334	96,8	345	100
Aitonak	2	0,6	343	99,4	345	100
Laguntza ordaindua	25	7,2	320	92,8	345	100
Lankideak, lagunak... etab.	4	1,2	341	98,8	345	100

Taula honetan argi eta argi ikusten da lan banaketaren alderdi aipagarrietako bat: emakumeak dira (amak, alabak, amonak, ahizpak...) etxeko lanak egiteaz eta familia zaintzeaz arduratzen direnak.

Zure ustez, familian baloratzen al dute egiten dituzun etxeko lanak eta zaintza lanak? Eta gizartean?

	Bai, guztiz	Bai, ia gehienetan	Bai, batzuetan	Ez, inola ere ez	Ed / Ee	Guztira
Zure ustez, familian baloratzen al dute egiten dituzun etxeko lanak eta zaintza lanak? ***(1. saila)	%38,3	%13,0	%19,4	%22,0	%7,2	%100,0
Zure ustez, gizartean baloratzen al da egiten dituzun etxeko lanak eta zaintza lanak? ***(2. saila)	%7,8	%5,5	%20,9	%64,3	%1,4	%100,0



**HELBURUA:** Bi sexuen artean benetako berdintasuna lortzeko, eta orobat, emakumeen erabateko garapena eta beren autonomia pertsonala lortzeko lagungarriak izango diren erreferentziatzko balio, jarrera eta eredu pertsonalak zein kolektiboak eraikitzea eta helaraztea.

**PROGRAMAK:** 1. KOEDUKAZIOA ETA ORIENTAZIO EZ-SEXISTA, HEZKUNTZA ZIKLO GUZTIETAN  
2. KULTURA ERAIKUNTZA EZ-SEXISTA

<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>1. PROGRAMA:</b> <b>KOEDUKAZIOA ETA ORIENTAZIO EZ-SEXISTA, HEZKUNTZA ZIKLO GUZTIETAN</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOAK:</b> Nesken eta mutilen ezagutza eta sozializazioa garatzea, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipio informatzailetik eta pertsonaren duintasunetik abiatuta. Bereizkeria, jarduera eta jokabide sexistak errotik kentzea familietan, hezkuntza zentroetan eta aisialdiko eta denbora libreko zerbitzuetan.</p>	<p><i>Adierazitako ekimen guztiak ikastetxeetara, 0-3 urteko zentrora, Musika Eskolara, Gazteria Saileko zerbitzuetara - ludoteka, guraso eskola, denbora libreko begiraleak, udan euskaraz- eta Helduen Eskolara bideratuak dira.</i></p> <p>1- Hezkuntzaren komunitateari hainbat gairi buruzko informazioa eman eta sentsibilizatu: bereizkerian oinarritutako jokabide eta jarrerak, genero harremanak eta estereotipoak, hizkuntza ez-sexista, kirol eta aisialdiko gune ez-sexisten erabilera, jolas eta jostailu ez-sexistak.</p> <p>2- Generoko azterketari, koedukazioari, orientazio ez-sexitari buruz egindako hedadura handiko ikerketak, azterketak eta materialak ikastetxeetan eta zerbitzuetan zabaldu.</p> <p>3- Gurasoei emakumeen eta gizonen aukera berdintasunari eta genero ikuspegiari buruzko formazioa eman, gazteria sailarekin, 0-3 urteko zentroarekin eta guraso elkarteekin lankidetzan.</p> <p>4- Ikastetxeekiko lankidetzari eutsi eta sendotu, ikasleak hainbat eremutan formatuko dituzten programak aurrera eramateko: hezkuntza afektibo-sexuala; aniztasunari errespetua; pertsonen arteko harremanetan eta gatazketan indarkeria ez erabiltzea, eta bi sexuen aukera berdintasuna.</p> <p>5- Udalak irakasleen eta begiraleen prestakuntzarako antolatzen dituen ikastaroetan, berdintasunean eta koedukazioan oinarritutako formazioa txertatu.</p> <p>6- Irakasleak eta begiraleak hautatzeko, irizpideen artean berdintasunaren alorreko formazioa aintzat hartu.</p> <p>7- Berdintasunerako udal zerbitzuaren eta unibertsitatearen arteko lankidetzari eutsi, praktiketako ikasleak formatzeko.</p>



<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>2. PROGRAMA</b> <b>KULTURA EZ-SEXISTA</b> <b>ERAIKITZEA</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOA</b> Kultura soziala -ahozkoa zein idatzizkoa-, nortasuna eta balioen sistema bi sexuen arteko berdintasunaren printzipiotik eta pertsonen duintasunaren printzipio informatzailetik abiatuta garatzea.</p>	<p>1- Honako gai hauen adierazpen eta transmisio mekanismoei buruzko informazioa bildu eta zabaldu: - rol desberdintasuna, balioak eta genero estereotipoak - eraikuntzan eta transmisioan parte hartzen duten eragileen zeregina: familia, eskola, gizarte harremanak eta jokabideak, hizkuntza, kultura adierazpenak, komunikabideak eta publizitatea edo teknologia berriak.</p> <p>2- Komunikabideetan, publizitatean eta teknologia berrietan ezkutaturik dauden edo zeharka agertzen diren estereotipo sexisten eta bereizkerien kontrako salaketak biltzeko zerbitzua eskaini. Salaketa horiek dagozkien organismoetara bideratu.</p> <p>3- Altsasuko emakumeek eta emakume taldeek historiari, kulturari eta ezagutzaren transmisioari egindako ekarpenak –iraganen eta gaur egun- ikusarazi.</p> <p>4- Gizartea sentsibilizatu, gizarte harremanetan gertatzen diren erantzukizun banaketari eta denboraren erabilerari dagokionez, ezagutzaren eta kulturaren eragile sozializatzaile mota guztien bitartez sendotzen eta helarazten baitira horiek.</p> <p>5- Gizarte eragile guztiak hizkuntza, estilo, irudi eta komunikazio teknika ez-sexisten alorrean trebatu.</p> <p>6- Berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioaren arabera antolatu kultura eskaintza, emakumeen beharrei eta interesei arreta eginez eta kulturaren eta sorkuntza artistikoaren emakumezko erreferenteen ordezkartza orekatua bilduz.</p> <p>7- Diru laguntzak emateko prozesuan, aurreko puntua puntuazio gehieneko irizpidetzat hartu, Udaleko sail guztietan.</p>



## 5. ildo estrategikoa

### EMAKUMEEN ERABATEKO HERRITARTASUNA: ERABAKIETAN ETA BALIABIDEETAN PARTE HARTZEA

*Jabekuntza: Baliabideetarako sarbidea edukitzeko eta era aktiboan parte hartzeko eta norberaren bizitza eta komunitatearen bizitza moldatzeko gaitasun pertsonalak -alderdi ekonomiko, sozial eta politikoan- garatzeko prozesua.*

#### **100 HITZ BERDINTASUNERAKO.**

EUROPAR BATZORDEA, ENPLEGUAREN, LAN HARREMANEN ETA GIZARTE GAIEN ZUZENDARITZA NAGUSIA, 1998 Erabateko herritartasunaz baliatzeko, ezinbestekoa da lorpen horrek aitortzen juridikoa edukitzea, komunitate osoarentzat ezaugarri berak eta kontzeptu profil bakarra eta komuna edukitzea, gizarteak eta erakundeek ulertzea eta onartzea, hori gauzatzeko baliabideak eta tresnak edukitzea, eta, bereziki, horretarako sarbidea duten subjektuek existitzen dela jakitea.

#### **KANARIETAKO GOBERNUAREN III. BERDINTASUN PLANA.**

*Zer adierazten du emakumezkoen herritartasunak? Izatea eta ahal izatea; bere burua herritartzat edukitzea; entitate horren eta lorpen horren ezaugarriak ezagutzea; horretaz baliatzeko baliabideak eta eskubideak ezagutzea; horretaz baliatzeko aukerak edukitzea; gizarteak eta erakundeek emakumea herritarra dela jakitea eta halakotzat onartzea...*

#### **GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA:**

- Ezagutzen al dituzu Altsasuko Udalak, Elkartek, Klubek, Gizarte Zerbitzuek, Cederna-Garalurrek antolatzen dituzten jarduerak? Altsasuko emakumeen %38,5ek ez dute antolatutako jarduerarik batere ezagutzen edo oso gutxi ezagutzen dituzte, eta %42k jarduera batzuk baino ez dituzte ezagutzen.
- Parte hartzen al duzu ezagutzen dituzun jardueretan? Emakumeen %46,6k ez dute inoiz edo ia inoiz jardueretan parte hartzen.
- Emakumeen %51,9k nahikoa denbora librea dutela adierazten dute. Hala ere, kontuan hartu behar dugu 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen %33k beren denbora librea familiarekin egoteko eta zaintzeko erabiltzen dutela diotela, eta 45 eta 59 urte bitarteko emakumeen %20,5ek hori bera adierazten dute.
- Emakumeen %32,8k baino ez dute erakunderen batean parte hartzen, eta ehuneko horren barruan, %7,6k baino ez dute beren burua bazkide aktibotzat edo oso aktibotzat hartzen.
- Osasunari dagokionez, diagnostikoan adierazten da nahaste handia dagoela emakumeen osasunaren eta ugalketa osasunaren artean.



- Parte hartze politikoa: 13 zinegotzigotatik, 3tan baino ez daude emakumeak, eta bakarra da Informazio Batzorde bateko Lehendakaria. Sakanako Mankomunitatean, 28 ordezkariatik bat bakarra da emakumea.

**HELBURUA:** Emakumeak erabateko herritartasunaz baliatzen direla bermatzea, horien jabekuntzaren bitartez, eta orobat bermatzea erabakiak hartzeko prozesu sozial eta politikoan parte hartzen dutela eta baliabide eta zerbitzuez gozatzen dutela.

**PROGRAMAK:** 1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNERAKO UDAL ARAUDIA  
2. EMAKUMEAK ERABATEKO HERRITARTASUNAZ BALIATZEKO BALDINTZAK  
3. EMAKUMEEN PARTE HARTZEA GIZARTEAN, POLITIKAN, EKONOMIAN ETA KULTURAN

<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<b>1 . PROGRAMA</b> <b>EMAKUMEEN ETA GIZONEN</b> <b>ARTEKO AUKERA</b> <b>BERDINTASUNERAKO UDAL</b> <b>ARAUDIA</b>  <b>HELBURU OPERATIBOAK:</b> Altsasun emakumeen jabekuntza bultzatzeko ekimenak eta estrategiak arautuko eta legitimatuko dituzten araudiak eta ordenantzak erredaktatzea	1- Hizkuntza (ahozkoa, idatzia eta irudi bidezkoa) ez-sexista erabiltzeko ordenantza bat erredaktatu eta onartu 2- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren printzipioa udal administrazioan sartzeko bultzatuko dituzten jardunbideak eta prozedurak arautzeko barne erregimeneko araudia erredaktatu eta onartu.

<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>2. PROGRAMA</b> <b>EMAKUMEAK ERABATEKO HERRITARTASUNAZ BALIATZEKO BALDINTZAK</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOA</b> Ekintza positiboko neurriak bultzatzea, legediak emakumei aitortzen dien eskubideetara, askatasunetara, zerbitzuetara eta prestazioetara sarbidea edukitzeko eta horiez eraginkortasunez gozatzeko</p>	<p>1- Altsasuko gizartearen hainbat eremutan –osasuna, hezkuntza, kultura, kirola, parte hartze soziala– emakumeek duten egoerari, genero harremani eta bi sexuen arteko berdintasun printzipioaren egoerari buruzko informazioa lortu, aztertu eta zabaldu, hainbat gizarte sektore kontuan hartuta, horien behar espezifikoak buruzko informazioa ere bildu ahal izateko.</p> <p>2- Altsasuko herritarrentzako dauden zerbitzuak eta baliabideak zabaldu eta sustatu, emakume guztiak horietara sarbidea izan dezaten, arreta berezia jarriz biztanle talde bakoitzaren berezitasunetan.</p> <p>3- Aholkularitza juridikoaren zerbitzua egokitu eta sendotu, emakumei informazioa eta aholkularitza juridikoa iristen zaiela bermatzeko.</p> <p>4- PLxC delakoaren barruan, bizitza pertsonala, familiarra eta lanari dagokiona bateratzea helburua duten beste zerbitzu batzuk sortu.</p> <p>5- Teknologia berrien ezagutza eta erabiltzeko aukera bermatu, autonomia handiagoa lortzeko, informazioa eskuratzeko eta sareak sortzeko tresnak baitira (ikastaroak antolatu, IKT zerbitzuak eskaini eta jarduera horretan lagun dezaketen erakundeekin lankidetzan jardun).</p> <p>6- Emakumeek Altsasuren garapenean egindako lana eta ekarpenak ezagutzera eman, erreferenteak sortzeko eta horien parte hartze sozialari balioa emateko.</p> <p>7- Memoria historikoa berreskuratzea bultzatzen duten lan guztietan genero irizpideak sartu.</p> <p>8- Behar handiko egoeratan dauden emakumei mesede egingo dieten irizpideak txertatu diru laguntzetan, laguntzetan eta hobarrietan: ‘guraso bakarreko’ familien arduradunak, alargunak, banantzeko izapideak egiten ari diren emakume langabetuak, hitzartutako sariak jasotzen ez dituzten emakume bananduak...</p>



<i>Programa</i>	<i>Proposatutako ekimenak</i>
<p><b>3. PROGRAMA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA GIZARTEAN, POLITIKAN, EKONOMIAN ETA KULTURAN</b></p> <p><b>HELBURU OPERATIBOA</b> Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunean eta ordezkartzari eta parte hartzeari dagokion parekotasunean oinarritutako gizarte hitzarmen berri bat bultzatuko duten ekintza positiboko neurriak hartzea.</p>	<ol style="list-style-type: none"><li>1- Emakumeen eta gizonen Aukera Berdintasunerako Udal Kontseilua sortu.</li><li>2- Emakumeak sentsibilizatu eta formazioa eman, gizartean, politikan, kulturaren eta ekonomian lider izateko; emakumeek eremu guztietan duten parte hartze publikoari buruzko gogoeta eta eztabaida egiteko foroak bultzatu.</li><li>3- Gizartea, erakunde publikoak eta elkarte politiko eta sozialak sentsibilizatu, ordezkartza publikoan eta pribatuan bi sexuen parekotasun demokratikoa kontuan hartzeko beharrari buruz.</li><li>4- Aukera berdintasunari eta genero ikuspegiari buruzko, eta orobat, emakumeen parte hartzearen eta lidergo publikoaren alorrean dauden oztopoei buruzko foroak eta eztabaida eta gogoeta jardunaldiak egin, politikan, gizartean, ekonomian eta kulturaren erantzukizuneko lanpostuak betetzen dituzten emakumeekin.</li><li>5- Emakumeek Altsasun eta beren gizarte ingurunean izan duten parte hartze publikoaren memoria historikoa berreskuratu, eta erreferentzia femeninoak eta emakumeek historiari egindako ekarpen interesgarriak ezagutzera eman.</li><li>6- Emakume elkarten mugimendua bultzatu eta babestu, proiektuak eta ekimenak burutzeko.</li></ol>



## 6. EZARTZEA ETA GAUZATZEA

**KOMUNIKAZIOA:** Plana inplementatzeko, lehenengo, ezagutzera eman behar da, jendeari jakitera eman behar zaio, oso-osorik: jendeak ezagutzeaz gainera, bere egin behar du, eta gainera, foro eta gizartearen topaleku eta komunikabide guztietara zabaldu behar da. Aukera berdintasuna lortuko bada, alegia, emakumeak hainbat eremutan –legea, ekonomia, zergak, lana, osasuna, hezkuntza, kultura– beren eskubideez, askatasunez eta bizitza baldintzez baliatuko badira, ezinbesteko baldintza bat bete behar da, hau da, alor horien eskumen materiala generoaren ikuspegia kontuan hartuta gauzatu behar da, eta horretarako, halaber, genero zeharkakotasuna hartu behar da kontuan, bai politika orokorretan bai arloz arlokoetan. Hori begien bistakoa da kontuan hartzen bada berdintasunerako erakundeek ez dituztela beren politika sektorialak politika orokorrekiko (enplegua, hezkuntza, osasuna...) paralelo egiten, aitzitik, izatekotan ere, politika horiek diseinatzeko edo aplikatzeko erabiltzen diren irizpideetan eragiten dute.

**KOORDINAZIOA:** Horregatik, berebiziko garrantzia du berdintasunerako sailaren eta gainerako udal sailen arteko koordinazioak eta lankidetzak. Zeharkako politika bat, emakume eta gizonen aukera berdintasunerako politika esate baterako, Udalaren egituraren eraginkortasunez normalizatuko bada, ezinbestez genero ikuspegia erantsi behar da politika sektorialetan.

**BULTZADA ETA GARAPENA:** Plan hau bultzatzeko eta garatzeko beharrezkoa da Jarraipen Batzorde Tekniko bat sortzea. Batzorde hori era honetara antolatuko litzateke:

- maila politikoan, Udal Batzorde Informatzaileen Lehendakariak, Alkatetza buru dela
- maila teknikoan, udaleko sail eta zerbitzu guztietako arduradunak

Batzorde hori urtean bitan bilduko da, gutxienez, urteko plangintzarako proposamenean parte hartzeko eta urtean zehar egindako lana ebaluatzeko.

Batzorde horren funtzioak honakoak dira:

- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea; horretarako, lan metodologiak bateratua izan behar du, lan eraginkorra eta jarraipenerako informazioa biltzea ahalbidetuko duena.
- Informazioa departamentu guztietara bideratzea.
- Jarraipenerako eta ebaluaziorako galdetegiak betetzea, eta esku hartzeko proposamenak egitea.



## 7. EBALUAZIOA

Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako planaren ebaluazioa plana planifikatzeko eta gauzatzeko prozesuari datxekion tresna da. Ebaluazioak erabilera praktikoa bilatzen du batez ere, eta horretarako, ondoren hartuko diren erabaki politiko eta metodologikoez izango dituzten ondorioak aztertzen ditu. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako politikei dagokienez, bada kontuan hartu beharreko zailtasun bat, izan ere, plan horietan proposatzen diren ekimen askok eta askok jokabide eta jarrerak aldatzea dakarte ondorioz, eta horiek epe luzera baino ez dira hautematen eta modu kualitatiboan baino ezin dira neurtu.

Abian jarritako jarduera tresnak nola funtzionatu duten zehaztu nahi dugulako egiten dugu ebaluazioa (politika publikoen kalitatea), baina baita kudeaketa politikoari gardentasuna emateko ere, alegia, zer egin den, zer baliabide erabili diren eta nola erabili diren, zer hedadura izan duten.

Egiten den ebaluazioak objektiboa eta proaktiboa izan behar du, eta planaren garapenean erabakiak hartzera eta ebaluazioaren ondorioak aplikatuko zaizkien politika orokorretarako eta sektorialetarako informazio baliagarria lortzera bideratua izango da, funtsean. Horrek ez du esan nahi ebaluazioa kuantitatiboa baino izango ez denik, ebaluazio kualitatiboa ere beharrezkoa da, horrela jakingo baitugu zer pertzepzio duten Altsasuko talde politikoek, erakunde sozialek, herritarrek eta emakumeek.

Ebaluazioaren aldagaiak eta adierazleak Plana onartzen denean eta urteko plangintzetan zer ekimen egingo diren erabakitzen denean definituko dira.

II. ERANSKINEAN adierazleen proposamena egiten da.



ALTSASUKO HIRIBILDUKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA M.I. VILLA DE ALSASUA

## I. ERANSKINA: ARAU ETA LEGE OINARRIA

1. Lege oinarria: bi sexuen aukera berdintasunaren alorreko arau eta erakunde esparrua
2. Beste plan batzuekiko koherentzia





## 1. Oinarri juridikoa

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Altsasuko I. Plana arau eta lege esparru honetan oinarritzen da:

### NAZIOARTEKO EREMUA

#### 1. Nazio Batuen Gutuna. (1945-6-26).

*Ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eremuan eta eremu humanitarioan nazioartean sortzen diren arazoak konpontzeko nazioarteko lankidetzaz lortzea, baita guztientzako giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak betetzeko ere, arraza, sexu, hizkuntza edo erlijioagatiko diskriminazioen gainetik (1. kap.; 1.3. art.).*

#### 2. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. (1948-12-10).

##### 1. artikulua

*Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.*

##### 2. artikulua

*Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.*

#### 3. Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena. (NBE. 1966-12-16). (Espainiak 1977-4-27an berretsia).

*3. artikulua: Hitzarmen honetan alderdi diren estatuek hitz ematen dute gizon eta emakumeen berdintasuna bermatuko dutela, Hitzarmen honetan aipatutako eskubide zibil eta politiko guztiez gozatzeari dagokionez.*

#### 4. Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena (NBE. 1966-12-19). (Espainiak 1977-4-27an berretsia).

*3. artikulua: Hitzarmen honetan alderdi diren estatuek hitz ematen dute gizon eta emakumei titulu berdintasuna bermatuko dietela, Hitzarmen honetan aipatutako eskubide zibil eta politiko guztiez gozatzeko.*



## 5. Emakumearen kontrako bereizkeria modu oro ezabatzeari buruzko Hitzarmena (CEDAW) (1979-12-18). (Espainiak 1983-12-16an berretsia)

1. artikulua: Hitzarmen honen helburuetarako, "emakumearen kontrako bereizkeria" esapidearen bitartez adierazten da: *sexuan oinarrituta egiten den bereizkeria, bazterkeria eta murrizketa oro edo, edozein dela ere emakumearen egoera zibila eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna oinarri hartuta, emakumeak giza eskubideez eta funtsezko askatasunez gozatzeko edo baliatzeko duen aitortpenaren murrizketa edo ezeztatze modu oro, eta baita hura helburu duen edo hura ondorioz ekar dezakeen bereizkeria oro ere, politikaren, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren alorrean eta alor zibilean edo beste edozein eremutan.*

19992an Emakumeen kontrako bereizkeria ezabatzeko Batzordea sortu zen, Hitzarmena betetzen zen zaintzeko.

## 6. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 48/104 Ebazpena, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko (1993-12-20).

1. artikulua: Adierazpen honen helburuetarako "emakumearen aurkako indarkeria" esapidearen arabera sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira, halaber, ekintza horien bitartez emakumea mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan zein pribatuan.

## 7. Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentziak:

- Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia (Viena, 1993ko ekaina).

Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa

18. artikulua: *Emakumearen eta nes karen giza eskubideak giza eskubide unibertsalen parte dira, eta parte besterenezin, banaezin eta osagarri, gainera. Nazioarteko komunitatearen lehentasunezko helburua da emakumeek, bizitza politikoan, zibilean, ekonomikoan, sozialean eta kulturean, eremu nazionalean, eskualdekoan eta nazioartekoan, erabateko parte hartzea izatea, berdintasun baldintzetan eta sexuan oinarritutako bereizkeria modu oro errotik ezabatzea.*

- Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia (Kairo, 1994). Ekintza programa.

### IV. Kap. SEXUEN ARTEKO BERDINTASUNA ETA EKITATEA ETA EMAKUMEAREN GAITZEA

A. Emakumearen egoera hobetzea. Jarduteko oinarriak

4.1. *Emakumearen gaikuntza eta autonomia eta bere egoera politikoa, soziala, ekonomikoa eta osasunaren alorrekoa hobetzea, berez, garrantzi bereziko helburua da. Horrez gainera, horiek guztiak ezinbestekoak dira garapen iraunkorra lortzeko. Beharrezkoa da, halaber, emakumeek eta gizonen neurri*



*berean parte hartzea bizitza produktiboan zein erreproduzioari dagokionean, seme-alaben hazkuntzaren eta etxearen mantenimenduaren erantzukizunak elkar banatuz.*

*B. Neska. Jarduteko oinarriak*

*4.15. Sexuaren ondoriozko bereizkeria bizitzaren lehenengo urteetatik beretik hasten denez gizarte guztietan, neskentzako berdintasun handiagoa lortzea izango da lehenengo urratsa, emakumeak bere aukerak bete-betean gauzatzen dituela eta garapen prozesuan berdintasunez parte hartzen duela bermatzeko.*

▪ **Gizarte Garapenerako Munduko Goi Bilera (Kopenhage 1995)**

*Jarduera programa. Ohartu gara: g) Gizon baino emakume gehiago bizi direla erabateko pobrezia egoeran, eta desoreka hori areagotzen doa gainera; horren guztiaren ondorioz, emakumeek eta beren seme-alabek ondorio larriak jasaten dituzte. Emakumeei egokitzen zaie pobrezia, gizarte desintegrazioaren, langabeziaren, ingurumenaren degradazioaren eta gerraren ondoriozko arazoaren parte izugarri handiari aurre egitea;*

*Bosgarren konpromisoa: Hitz ematen dugu giza duintasunaren erabateko errespetua bultzatuko dugula, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta ekitatea lortzearen alde egingo dugula, emakumeek bizitza politikoan, zibilean, ekonomikoan, sozialean, kulturean eta garapenean duen parte hartzea eta zuzendaritza funtzioa aitortu eta areagotuko dugula.*

*Horretarako: h) Neurri eraginkorrak hartuko ditugu, besteak beste, legeen aldarrikapenaren eta aplikazioaren bitartez, eta emakumeen eta nesken aurkako bereizkeria, esplotazio, tratu txar eta indarkeria modu orori aurre egiteko eta ezabatzeko helburua duten politikak aplikatuko ditugu, dagokien nazioarteko tresnekin eta adierazpenekin bat eginez;*

**8. Milurtekoaren Adierazpena. 2000**

*6. XXI. mendean nazioarteko harremanetarako funtsezko hainbat balio ezinbestekoak direla iruditzen zaigu: Askatasuna. Berdintasuna, solidaritatea, tolerantzia, naturaren errespetua eta erantzukizun komuna.*

• *Berdintasuna. Ez pertsona bati ez herrialde bati ezin zaio garapenetik onura ateratzeko aukera ukatu. Gizon eta emakumeen aukera eta eskubide berdintasuna bermatu behar da.*

*20. Erabakitzen dugu, halaber:*

- *Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen autonomia bultzatzea, horiek baitira pobrezia, goseari eta gaixotasunei aurre egiteko baliabide eraginkorrenetakoak, baita garapen benetan iraunkorra sustatzeko ere.*

*25. Erabakitzen dugu, beraz:*

- *Emakumearen aurkako indarkeria ororen kontra borroka egitea eta emakumeen kontrako bereizkeria modu oro ezabatzeari buruzko Hitzarmena aplikatzea.*



## 9. Emakumei buruzko Munduko Konferentziak.

### I. Mexiko, 1975. Hiru helburu finkatu ziren:

- Erabateko genero berdintasuna lortzea eta genero bereizkeria deuseztatzea;*
- Emakumeak integratzea eta garapenean osotasunez parte hartzea;*
- Emakumeak gero eta ekarpen handiagoa egitea munduan bakea sendotzeko prozesuari.*

### II. Kopenhage, 1980. Mexikon zehaztutako berdintasun, garapen eta bake helburu orokor horietara iristeko hainbat eremutan neurri zehatzak hartu behar zirela aipatu zen. Hona hemen hiru eremu horiek:

- Hezkuntza jasotzeko berdintasuna*
- Enplegu aukerak*
- Osasunaren arretarako zerbitzu egokiak*

### III. Nairobi, 1985. Oinarrizko hiru neurri kategoria bereizi ziren:

- Konstituzio eta lege mailako neurriak;*
- Berdintasuna parte hartze sozialean;*
- Berdintasuna parte hartze politikoan eta erabakiak hartzeko prozesuan*

### IV. Beijing, 1995. Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma onartzen dira. Ekintza Plataforman, emakumearen aurrerakuntzan oztopo nagusi ziren hamabi alor zehaztu ziren, bereziki kezka garritzat hartzen baitziren, eta gobernuek eta gizarte zibilak alor horietan neurri zehatzak hartzea ezinbestekotzat jotzen zen:

- emakumea eta pobrezia;*
- hezkuntza eta emakumearen gaitzea;*
- emakumea eta osasuna;*
- emakumearen kontrako indarkeria;*
- emakumea eta gatazka armatuak;*
- emakumea eta ekonomia;*
- emakumearen parte hartzea boterean eta erabakiak hartzeko unean;*
- erakundeen mekanismoak emakumeak aurrera egin dezan;*
- emakumearen giza eskubideak;*
- emakumea eta komunikabideak;*



ALTSASUKO HIRIBILDUKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA M.I. VILLA DE ALSASUA

*emakumea eta ingurumena;  
neskak.*

**V. Beijing + 5.** "Emakumea 2000. urtean: generoen arteko berdintasuna, garapena eta bakea XXI. mendean" (New York) 2000. urteko ekainean, Batzar Orokorrak, bilera saio ohiz kanpokoetarako deialdia egin zuen, Nazio Batuen New Yorkeko egoitzan, Beijingeko Ekintza Plataforma onartu ondorengo bost urteetan egindako aurrerakuntzak aztertzeko xedez.

*Beijing + 5 azterketaren ondorioen agirian, garrantzizko berrikuntzak aipatu ziren:*

*makroekonomiari buruzko erabakietan emakumeek berdintasunez parte hartu beharraren aitortpena;  
globalizazioak emakumeengan dituen ondorio negatiboen aitortpena, eta gizarte babeserako sarbidea berdintasunean oinarritua izateko proposamena;  
oinordekotza eta jabetza eskubidearen aitortpena;  
Emakumearen aurkako Bereizkeria Modu Oro Ezabatzeko Hitzarmenaren Aukerako Protokoloaren onarpena,  
Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutuan sexu indarkeria modu oro sartzea, hala nola, gerra krimenak eta, zenbait egoeratan, gizakien kontrako krimenak edo genozidioa;  
eta Estatuek, hainbat kasutan, hala nola "estatuz kanpoko eragileek" eragindako bidegabekeria, duten erantzukizunari buruz konpromiso berriak hartu beharra.*

[www.emakunde.es](http://www.emakunde.es)

**VI. Beijing + 10.** Batzar Nagusiaren bilera sailei dagokien hirurogeigarren aldiko goi mailako bilkura, New Yorken, 2005ean.

*4. 2005eko Munduko Goi Bileran parte hartu zuten Estatu eta Gobernuetako Buruek berretsi egin zuten generoen arteko berdintasuna ezinbestekoa zela garapena, bakea eta segurtasuna bultzatzeko (Batzar Nagusiaren 60/1 ebazpena, 12. or.).  
Horrez gainera, erabaki zuten generoen arteko desberdintasunak ahal bezain bizkorren ezabatzea lehen eta bigarren hezkuntzan, eta 2015. urterako hezkuntza maila guztietan; emakumeek ondasunen jabe izateko eta oinordetzan hartzeko askatasuna eta eskubide bera dutela bermatzea, eta orobat bermatzea ondasunak eta etxebizitza ziurtasunez edukiko dituztela; ugalketaren alorreko osasunerako sarbide berdintasuna ziurtatzea; emakumeak lan merkatuetara, enplegu iraunkorrera eta laneko babes egokira berdintasunez iristeko aukera bultzatzea; emakumeek ondasunak eta baliabide produktiboak, lurra, mailegua eta teknologia barne, lortzeko berdintasuna ziurtatzea; bereizkeria eta indarkeria modu oro ezabatzea, besteak beste, zigorgabetasunarekin amaitu eta gatazka armatuetan eta horien ondorengoetan emakumeak eta neskak babestuko direla ziurtatzea; eta emakumeek*



*erabakiak hartzeko gobernu organoetan ordezkaritza handiagoa izan dezaten bermatzea, esate baterako, prozesu politikoan parte hartzeko aukera berdinak izango dituztela zaintzea. 58. par.*

*6. Munduko buruzagiek aitortu zuten garrantzi handikoa zela genero ikuspegia jarduera orokorrean sartzea, generoen arteko berdintasuna lortzeko tresna baita, eta hitz eman zuten modu aktiboan jardungo zutela generoaren ikuspegia kontuan har zedin politikaren, ekonomiaren eta gizartearen alor guztietako politikak eta programak formulatzeko, aplikatzeko, zaintzeko eta ebaluatzeko prozesuetan.*

## EUROPAR EREMUA

### 1. Erromako Ituna (1957-3-25), zeinaren bitartez eratu zen Europako Ekonomia Erkidegoa.

*- 3. 2. art. Artikulu honetan agertzen diren jarduera guztietan, Erkidegoaren helburua izango da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzea eta horien arteko berdintasuna bultzatzea.*

*- 13. art. (6 A. artikulua zaharra). Itun honetako gainerako xedapenei kalterik eragin gabe eta Erkidegoari Itunak esleitzen dizkion mugen barruan betiere, Kontseiluak, aho batez, Batzordeak proposatuta eta Europar Parlamentuari kontsulta egin ondoren, sexua, arraza edo jatorria, erlijioa edo uste sendoak, ezgaitasuna, adina edo sexu joeren ondoriozko bereizkeriaren kontra borroka egiteko ekintza egokiak hartu ahal izango ditu.*

*- 137. art. (118. artikulua zaharra)*

*1. 136. artikuluko helburuak iristeko, Erkidegoak Estatu kideen egintza babestu eta osatuko du eremu hauetan: gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, lan merkatuan dituzten aukerei eta lanean duten tratuari dagokionez.*

### 2. Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europar Hitzarmena

1950eko azaroaren 4koa, Espainiak 1979ko irailaren 26an berretsia eta 1979ko urriaren 10eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

*14. artikulua. Hitzarmen honetan aitortutako eskubide eta askatasunez baliatu ahal izango da inolako bereizkeriarik gabe, eta bereziki, sexua, arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politiko zein beste edozein iritzi, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional batekoa izatea, ondarea, jaiotza edo beste edozein egoeraren ondoriozko bereizkeriarik gabe.*

### 3. Europar Batasunaren Hitzarmena, (Maastricht, 1992-2-9) (Bertsio bateratua)

*3.2. artikulua. Artikulu honetan agertzen diren jarduera guztietan, Batasunaren helburua izango da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzea eta horien arteko berdintasuna bultzatzea.*

### 13. artikulua

1. Hitzarmen honetako gainerako xedapenei kalterik eragin gabe, eta Batasunari Itunak esleitzen dizkion mugen barruan betiere, Kontseiluak, aho batez, Batzordeak proposatuta eta Europar Parlamentuari kontsulta egin ondoren, *sexua, arraza edo jatorria, erlijioa edo uste sendoak, ezgaitasuna, adina edo sexu joeren ondoriozko bereizkeriaren kontra borroka egiteko ekintza egokiak hartu ahal izango ditu.*

### 141. artikulua

1. Estatu kide guztiek bermatu beharko dute ordainsari berdintasunaren printzipioa aplikatzen dela lanpostu berean edo balio bereko lan batean diharduten langile guztientzat.

2. Ordainsaritzat hartzen da, artikulua honetan adierazten denaren arabera, oinarrizko edo gutxieneko soldata normala eta enpresaburuak, lan harremanaren arabera, langileari, zuzenean edo zeharka, dirutan edo salgaietan ordaindutako beste edozein gehigarri.

## 4. Emakumei buruzko Nazio Batuen laugarren konferentzia

Batzordeak Kontseiluari 1995eko ekainaren 1ean azaldutako txostena – banaketa eta parte hartze ekitatiboa: gizonen eta emakumeen arteko harreman berri bat ezartzeko; Europar Batasunaren lehentasunak emakumei buruzko Nazio Batuen laugarren munduko konferentziarako (Beijing, 1995eko iraila)

4. Batasunak helburu estrategiko hauek ezarri ditu:

- *gizabanako guztiek bizitza sozialean bereizkeriarik gabe parte har dezaten era aktiboan bultzatzea, batez ere emakumeen kontrako bereizkeria modu oro ezabatzeari buruzko Hitzarmenaren berrespena eta aplikazioa babestuz;*
- *emakumeen kontrako indarkeriaren, sexu jazarpenaren eta sexu esplotazioaren alorreko legedia indartzea;*
- *emakumei erantzukizun handiagoak ematea helburu duten gobernu kanpoko erakunde funtzio indartuko duten neurriak hartzea;*
- *babes ekintzen bitartez, emakumeek erakunde publiko eta politiko guztietan erabakiak hartzeko prozesuan parte har dezaten bultzatzea eta prozesua lasterragotzea;*
- *mundu osoko emakumei zenbat ume, zer tarterekin eta noiz eduki nahi dituzten askatasunez eta erantzukidetasunez erabakitzeko eskubidea bermatzea, baita horretarako informazioa eta baliabideak ere;*
- *lan merkatuan bereizkeria horizontala eta bertikala zuzentzeko neurriak hartzea;*
- *lanaren antolamenduan laneko erantzukizunak eta etxeko lanei dagozkienak zuzentasunez banatuko direla bermatzeko egin beharreko aldaketak bultzatzea; erantzukizun pertsonalak, sozialak eta profesionalak bateratzeko aukera eskaintzen duten neurriak hartzea;*
- *aukera berdintasunaren gaia politika eta ekintza guztietan txertatzea (mainstreaming-a).*



## 5. Aukera berdintasuna Europar Batasuneko politiketan txertatzea

Batzordearen Txostena, 1996ko otsailaren 21ekoa, «Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna Batasuneko politika eta ekintzetan txertatzea: Europar Batasunak adierazten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna («genero ikuspegia») era sistematikoan kontuan hartu behar dela Batasuneko politika eta ekimen guztietan, horiek sortzen diren unean bertan, era aktiboan eta agerian.

*«Zeharkakotasunaren» kontzeptuak adierazten du era sistematikoan hartzen direla kontuan emakumeen eta gizonen baldintzen, egoeren eta beharren arteko desberdintasunak Batasuneko politiketan eta ekimenetan. Ikuspegi orokor eta zeharkako hori gauzatzeko, beharrezkoa da politika guztietan mobilizazio ahalegina egitea.*

## 6. Emakumeek eta gizonen erabakiak hartzeko prozesuetan modu orekatuan parte hartzea

Kontseiluaren gomendioa, 1996ko abenduaren 2koa, emakumeek eta gizonen erabakiak hartzeko prozesuetan modu orekatuan parte hartzen dezaten.

Europar Batasunak hainbat neurri eta ekimen definitzen ditu erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte hartzea bultzatzeko, bai sektore publikoan bai pribatuan.

## 7. Gizonen eta emakumeen parte hartze orekatua jardura profesionalean eta familia bizitzan.

Kontseiluaren eta 2000. urteko ekainaren 29ko Kontseiluan elkartutako lan eta gizarte gaietarako ministroen erabakia, gizonen eta emakumeen jardura profesionalean eta familia bizitzan modu orekatuan parte hartzeari buruzkoa.

HELBURUA: Estatu kideek bultzatzea jardura profesionalean eta familia bizitzan gizonen eta emakumeen parte hartze orekatua bilatzen duten estrategiak definitzera.

## 8. Europar Kontseiluko Ministro Batzordearen gomendioa (2002), emakumeak indarkeriaren aurrean babesteari buruzkoa.

*EGIAZTATU DELARIK emakumearen aurkako indarkeria gizonen eta emakumeen arteko botere desorekaren ondorio dela, eta horrek emakumezkoen aurkako bereizkeria larria dakarrela, bai gizartean bai familiarean baitan;*

*AHOLKUA EMATEN DIEGU Estatu kideetako gobernuei*

*I. Beren legedia eta politikak berrikustea komeni dela:*

- *emakumeei beren giza eskubideak eta funtsezko askatasunak aitortuko zaizkiela, horiez gozatu eta baliatu ahal izango dutela eta babestuko zaizkiela bermatzeko;*



- *emakumeak beren eskubide ekonomikoez eta sozialez askatasunez eta eraginkortasunez balia daitezten hartu beharreko neurri guztiak dagokion eremuan hartzeko;*
  - *neurri guztiak nazio mailan koordinatuta daudela eta biktimen beharretan oinarrituko direla bermatzeko, eta orobat, garrantzizko erakunde nazionalak, gobernuz kanpoko erakundeez gainera (GKE), beharrezko neurrien osaeran eta ezarpenean parte hartuko dutela bermatzeko, bereziki gomendio honetan aipatzen diren neurrien ezarpenean;*
  - *emakumeen aurkako indarkeriaren kontra diharduten GKEen lana, maila guztietan, bultzatzeko, eta GKE horiekin lankidetzatza aktiboa ezartzeko, laguntza logistikoa eta ekonomikoa barne;*
  - *estatuak onar dezaten indarkeria kasuei, estatuak eginak izan edo partikularrek eginak izan, aurre hartzeko, ikertzeko eta zigortzeko eginbideak aurrera emateko duten betebeharra, eta biktimei babes eman diezaioten;*
  - *emakumeen kontrako gizonen indarkeria egitura eta gizarte arazo larria dela onartzeko, eta orobat, gizonen eta emakumeen arteko botere desorekan oinarritua dela onartzeko; beraz, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko ekimenetan gizonaek era aktiboan parte har dezaten bultzatu behar da;*
  - *Emakumeen kontrako indarkerian jarduten duten garrantzizko erakundeei (polizia, medikuntzaren alorreko profesionalak eta profesional sozialak) indarkeriari aurre hartzeko eta biktimak babesteko epe labur eta luzerako planak diseinatu ditzaten adorea emateko;*
- II. *Ikerketa lanak, datu bilketa eta nazio zein nazioarteko sareen ezarpena bultzatu ditzaten;*
- III. *Berdintasun gaiak, emakumeen kontrako indarkeria bereziki, lantzen dituzten programen sorrera bultzatu dezaten, goi mailako hezkuntzan eta ikerketa zentroetan, unibertsitate mailakoetan barne;*
- IV. *Komunitate zientifikoaren, eremu honetako GKEen, arduradun politiko eta legegileen, segurtasun gorputzen eta osasunaren, hezkuntzaren, gizartearen eta poliziaren alorreko erakundeen arteko interakzioa hobe dezaten, indarkeriaren kontrako ekimen koordinatuak diseinatu ditzaten...*

**9. Emakumeen eta gizonen tratu berdintasunaren printzipioa lan merkatutik kanpo** Kontseiluaren 2004/113/CE zuzentaraua, zeinaren arabera aplikatzen den gizonen eta emakumeen tratu berdintasunaren printzipioa ondasunerako eta zerbitzuetarako sarbidean eta horien hornikuntzan. Zuzentarauak adierazten du debekatuta daudela sexuan oinarritutako bereizkeriak ondasunetarako eta zerbitzuetarako sarbidean eta hornikuntzan, gizon eta emakumeen tratu berdintasunaren printzipioa Estatu kideetan era eraginkortasunez ezartzeko xedez. Beraz, debekatuta dago emakumeen eta gizonen arteko zuzeneko bereizkeria oro\*, eta ondorioz, haurdunaldiaren edo amatasunaren ondoriozko aurkako tratu oro, eta baita zeharkako bereizkeria oro\* ere. Jazarpena\*, sexu jazarpena\* eta bereizkeriaren pizgarri oro sexuan oinarritutako bereizkeriatzat hartzen da, hortaz, horiek ere debekatuta daude.



### Ekitaldiko funtsezko terminoak

- **Zuzeneko bereizkeria:** pertsona bat, bere sexua dela-eta, beste pertsona bat -antzeko egoeran- tratatu ohi den, tratatua izan den edo tratatuko litzatekeena baino okerrago tratatzen deneko egoera.
- **Zeharkako bereizkeria:** xedapen, irizpide edo jarduera batek, itxuraz neutroa izanik, beste sexuko pertsonari desabantaila ekartzen dion egoera, baldin eta xedapena, irizpide edo jardun hori ez bada helburu zilegi baterako justifikatzen eta helburu hori lortzeko baliabideak ez badira egokiak eta beharrezkoak.
- **Jazarpena:** Pertsona baten sexuari lotuta, nahi ez den jokabidea eragiten duen egoera, pertsona baten duintasunari kalte egiten diona eta giro larderiatsua, etsaitasunezkoa, apalgarria, umilgarria edo iraingarria helburu edo ondorio duena.
- **Sexu jazarpena:** Nahi ez den jokabidea eragiten duen eta sexu konnotazioa duen egoera, modu fisikoan, ahozkoan edo ez-ahozkoan adierazia, pertsona baten duintasuna bortxatzeko xedea duena eta giro larderiatsua, etsaitasunezkoa, apalgarria, umilgarria edo iraingarria helburu edo ondorio duena.

### 10. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko lan egitasmoa (2006-2010)

Lan egitasmoaren helburua da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako programa aurrera eramatea. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko estrategia ereduaren jarraipena da (2001-2005). Haren balantzea egiten da bertan, eta orobat, zabaldu egiten dira aurreko jarduerak eta beste berri batzuk proposatzen dira. Lan egitasmoaren barruan lehentasunezko sei alor definitzen dira (eta alor bakoitzerako helburuak eta funtsezko ekimenak), egitasmoa gauzatzen laguntzeko. Horren ondoren, aplikazio egoerari buruzko txostena idatziko da 2008an, eta baita ebaluazio bat ere, jarraipen proposamen batekin, 2010ean.

#### JARDUN EREMUAK:

1. Independentzia ekonomiko berbera gizon eta emakumeentzat;
2. Bizitza pribatua eta jarduera profesionala bateratzea;
3. Ordezkaritza bera erabakiak hartzeko prozesuetan;
4. Genero indarkeria modu oro errotik desagerraraztea;



5. Estereotipo sexistak deuseztatzea;
6. Genero berdintasuna bultzatzea, kanpoko politikan eta garapenean;

#### FUNTSEZKO EKIMENAK

- Legedia berraztertzea
- Sentsibilizazioa
- Estatistika hobeketa eta ikerketa gehiago

#### Estatuaren eremua

##### 1. Espainiako Konstituzioa, 1978.

1. artikulua: *Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta, beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu.*

9.2. artikulua: *Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere.*

14. artikulua: *Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozial aintzat hartuta.*

##### 2. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Erregimenaren Oinarriak Arautzen dituen.

28. artikulua.

*Udalek beste administrazioei berez dagozkien jardueren jarduera osagarriak egin ditzakete, bereziki hezkuntzaren, kulturaren, emakumearen sustapenaren, etxebizitzaren, osasunaren alorrean.*

##### 3. 1/1995 Errege Dekretu Legegilea, martxoaren 24koa, zeinaren arabera onartzen den Langileen Estatutua

4. artikulua. Lan eskubideak. 1. Langileen oinarritzko eskubideak dira:

c) Enplegua lortzeko, edo enpleguan bertan, bereizkeriarik ez pairatzea, sexuagatik, egoera zibilagatik, adinagatik (Lege honek adierazitako mugen barruan), arrazagatik, gizarte egoeragatik, ideia erlijioso edo politikoengatik, sindikatu bateko kide izateagatik edo ez izateagatik, ezta hizkuntzagatik ere, Espainiako estatuaren barruan...



e) Beren intimitatea eta beren duintasunari dagokion begirunea errespetatzea, baita izaera sexuala duen ahozko irain edo irain fisikoen aurrean babestea ere.

28. artikulua. Soldata berdina guztientzat, langilearen sexua dela-eta inolako bereizketarik egin gabe.

Enpresak soldata berdina ordainduko die denei, langilearen sexua dela-eta inolako bereizketarik egin gabe. Enpresak balio bereko lan bategatik soldata bera ordaindu beharko du, bai oinarrizko soldata bai soldata osagarriak, sexua dela-eta inolako bereizkeriarik egin gabe.

#### **4. 39/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, familia eta lan bizitza bateratzeko**

Emakumea lan mundura sartzea izan da mende honetako gizarte aldaketa sakonenetako bat. Gertaera horrek bultzatuta, ezinbestekoa da gizarte harreman berriak kontuan hartuko dituen eta emakumeen eta gizonen artean lankidetzeta eta konpromiso sistema berri bat finkatzea, bizitza profesionalean eta bizitza pribatuan erantzukizunak modu orekatuan banatzeko aukera emango duena, hain zuzen ere. Lana eta familia bateratzearen beharra dagoeneko gizarte errealitate berriari loturiko baldintza bihurtu da, eta hala azaldu da nazioartean eta komunitatean. Horrek problematika konplexua eta zaila sortu du, baina heldu egin behar zaio, ez bakarrik lege erreforma handien bitartez, honako honen antzera, baita horrekin batera pertsonen arretarako zerbitzuak bultzatuz, hau da, familia politika esparru zabalago baten barruan kokatuz.

#### **5. 1251/2001 Errege Dekretua, Familia Bizitza eta Lan Bizitza Bateratzeko Legearen zati bat garatzen duena.**

#### **6. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Neurriei buruzkoa.**

##### ARRAZOIEN AZALPENA

I. Genero indarkeria ez da eremu pribatuari eragiten dion arazoa. Alderantziz, gure gizarteko desberdintasunen sinbolo bortitza da. Emakume izate hutsagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria da, erasotzaileek ustea baitute emakumeek ez dutela askatasun eta errespetu eskubiderik ez erabakitze gaitasunik.

II. Botere publikoek ezin dute genero indarkeria beraiei ez balegokie bezala jardun, hori baita gure Konstituzioan aldarrikatzen diren askatasunerako, berdintasunerako, bizitzarako, segurtasunerako eta bereizkeriarik ez jasateko funtsezko eskubideen kontrako eraso agerikoenetako bat. Botere publiko horiek berek, Konstituzioaren 9.2. artikuluan adierazten denaren arabera, ekintza positiboko neurriak hartu behar dituzte eskubide horiek egiazko eta benetako bihurtzeko, eta aldatu behar dituzte horien osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak.

I. TITULUA Sentsibilizatzeko, aurre hartzeko eta hautemateko neurriak

3. artikulua. Sentsibilizazio planak. 2. Botere politikoek, beren eskumenen esparruan, informazio eta sentsibilizazio kanpaina espezifikoak bultzatuko dituzte, genero indarkeriari aurre hartzeko.

II. TITULUA Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak

I. KAPITULUA. Informazioa, gizarte laguntza integrala eta doako laguntza juridikoa edukitzeko eskubidea. 2. Genero indarkeriaren biktima direnei emandako informazioa, gizarte laguntza integrala eta laguntza juridikoa, kapitulu honetan arautzen diren moduan, lagungarriak dira osotasun fisikoa eta morala, askatasuna eta segurtasuna bermatzeko, eta sexua dela-eta bereizkeriarik ez jasateko eskubide konstituzionalak benetakoak eta eraginkorrak izango direla ziurtatzeko.

32. artikulua. Lankidetzaren planak

1. Botere publikoek lankidetzaren planak egingo dituzte genero indarkeriako egintzei aurre hartzeko, laguntza emateko eta esesteko, eta horietan osasunaren arloko administrazioek, justizia administrazioek, segurtasun indarrek eta gorputzek, gizarte zerbitzuek eta berdintasun erakundeek parte hartu beharko dute.

2. Plan horien garapenean, jarduera protokoloak antolatuko dira, parte hartzen duten administrazioen eta zerbitzuen jarduera orokorra eta integrala ziurtatzeko eta jarraitzen diren prozesuetan froga ekitaldiak egingo direla bermatzeko.

#### **7. 3/2007 LEGE ORGANIKOA, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako. Arrazoien azalpena**

II: Beharrezkoa da, hain zuzen ere, gaur egun oraindik bizirik dirauten sexuagatiko bereizkeria adierazpenei, zuzenekoei zein zeharkakoei, kontra egiteko eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatzeko arau egintza bat osatzea, eta hori galarazten duten traba eta estereotipo sozialak kentzea.

III: Lege honen berrikuntza nagusia, hala eta guztiz ere, bereizkeria jokabide horien prebentzioari dagokio, eta baita berdintasun printzipioa egi bihurtzeko politika aktiboaren aurreikuspenari ere. Aukera horrek nahitaez dakar desberdintasuna sor daitekeen edo betikotu daitekeen errealitate sozialaren, kulturalaren eta artistikoaren antolamendu eremuetan berdintasun printzipioa proiektatzea. Horregatik hartzen da berdintasunaren zeharkako dimentsioa -bereizkeriaren kontrako zuzenbide modernoaren ezaugarri nagusia- testu honen printzipio nagusitzat.

11. artikulua. Ekintza positiboak.

1. Botere Publikoek, berdintasun eskubide konstituzionala egi bihurtzeko xedez, neurri espezifikoak hartuko dituzte emakumeen alde, gizonekiko egiteko desberdintasun egoera nabarmenak zuzentzeko. Neurri horiek, oinarri izan dituzten egoerek irauten duten bitartean aplikatu ahal izango dira, eta arrazoizkoak eta proportzionatuak izan beharko dute, kasu bakoitzean lortu nahi den helburua kontuan hartuta.

2. Pertsona fisiko eta juridiko pribatuak ere neurri horiek hartu ahal izango dituzte, Lege honetan adierazten den moduan.



15. artikulua. Emakumeen eta gizonen tratu berdintasunerako printzipioaren zeharkakotasuna. Emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasunaren printzipioak informatuko du, zeharka, Botere Publiko guztien jardueraz. Administrazio Publikoek era aktiboan txertatuko dute printzipio hori beren xedapen arauemaileak hartzen eta gauzatzen dituztenean, eremu guztietako politikak definitzen eta horien aurrekontuak prestatzen dituztenean eta beren jarduera guztien garapenean.

21. artikulua. Administrazio Publikoen lankidetzak.

1. Estatuko Administrazio Nagusiak eta Autonomia Erkidegoetako Administrazioek lankidetzan jardungo dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eskubidea dagozkien konkurrentzietan txertatzeko, eta bereziki, jardueren plangintzetan txertatzeko. Emakumearen Sektoreko Biltzarraren baitan helburu hori bera duten jardunen baterako plangintzak eta programak onartu ahal izango dira.

2. Toki Erakundeek berdintasunerako eskubidea txertatuko dute beren konkurrentzien erabileran, eta helburu hori iristeko, lankidetzan jardungo dute gainerako Administrazio Publikoekin.

### Nafarroako Foru Erkidegoaren esparrua

#### 1. 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.

44. art. Nafarroak eskumen osoa du ondoko gai hauen gainean: 18. Komunitatearen garapena; emakumearen aurrerabideak; haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika.

#### 2. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa. Nafarroako Toki Administrazioaren Erregimena.

II. KAPITULUA – ZERBITZU PUBLIKOAK. LEHENENGO ATALA –XEDAPEN OROKORRAK. 189 artikulua. Kasu bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen dituzten herritar guztiek eskubide berberak izango dituzte tokiko zerbitzu publikoak erabiltzeko orduan, eta zerbitzu horietan ez da inolako bereizkeriarik egongo.

Zerbitzuaren araudian gaitasun ekonomiko eskasagoak edo babes berezia behar duten gizarte taldeen onerako erabakiak sar daitezke.

#### 3. 22/2002 Foru Legea, uztailaren 2koa, indarkeria sexistaren kontrako neurri integralak hartzeko.

12/2003 Foru Legea, martxoaren 7koa. 22/2002 Legea aldatzen duena.

53/2004 FORU AGINDUA, apirilaren 28koa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriaren Kontseilariarena, zeinaren arabera onartzen den indarkeria sexistaren kontra neurri integralak hartzeko eta martxoak 7ko 12/2003 Foru Legeak aldatutako uztailak 2ko 22/2002 Foru Legearen garapenerako xedapen arauemailearen proiektua osatzeko prozedurari ekitea.



**142/2006 FORU AGINDUA, ekainaren 21ekoa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriaren Kontseilariarena, zeinaren arabera jendaurrean aurkeztuko den, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta, indarkeria sexistaren kontrako neurri integralak hartzeko uztailak 2ko 22/2002 Foru Legearen garapenerako Araudia onartzen duen Foru Xedapenaren proiektua.**

**4. 33/2002 Foru Legea, azaroaren 28koa, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzeko.**

**5. 14/2004 Foru Legea, abenduaren 3koa, Nafarroako Gobernuari eta haren lehendakariari buruzkoa (52.1 eta 53.2 artikulua). Gizon eta emakumeen arteko berdintasunean izanen den eraginari buruzko txostenak).**

*52. artikulua. Foru Legearen proiektuen osaera.*

*1. Foru Legeen proiektuak osatzeko prozedura, legez nahitaezkoak diren izapideei kalterik eragin gabe, gaia kontuan hartuta erantzukizuna duen Departamentuan hasten da, aurreproiektuaren erredakzioaren bitartez, eta legeak agintzen dituen memoriaren edo memoriaren eta azterketen, txostenen eta dokumentuekin batera -aldarrikatzeko beharrari edo aukerari buruzkoak barne-, bertan ezartzen diren neurriek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean izango duten eraginari buruzko txostena eta horrek izango duen kostuari buruzko balioespena aurkeztuko da.*

*53. 2. artikulua. Foru Xedapen Legegileak egiteko, gutxienez, Foru Lege honetako 52. artikulua 1., 2. eta 3. ataletan aurreikusitako izapideei jarraituko zaie.*

**90/2006 FORU DEKRETUA, abenduaren 18koa, Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onartzen dituena**

*1. TITULUA Izaera, eskumenak eta funtzioak*

*3. artikulua Xedea eta helburuak*

*1. Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera iristea, Nafarroako bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren eremu guztietan.*

*2. Institutuaren helburua izango da sexuen arteko berdintasuna lortzea, egiazko eta zuzenbidezko osotasuna galarazten duten oztopoak ezabatzea, eta Nafarroako emakumeen eta gizonen kontrako bereizkeria modu oro deuseztatzea.*

**Burlatako Udalerrian hizkuntza ez sexista erabiltzeko eta sustatzeko UDAL ORDENANTZA arautzailea. 29. NBO - Data: 2005/03/09**



## 2- BESTE PLAN BATZUEKIKO KOHERENTZIA

Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako plan hau egitean Europar Batasuneko, estatuko, autonomia erkidegoetako eta tokiko beste egitasmo batzuk ere aztertu dira, eta lagungarriak izan dira berdintasun politiken diseinuari eta kudeaketari buruzko gaur egungo gomendioen arabera diseinatzeko.

Edonola ere, planaren bideragarritasuna ziurtatzeko, Altsasuko errealitatera ahal bezainbeste egokitzeko ahalegina egin da, bai proposatutako neurriei dagokienez, bai erabakiak hartzeko zein inplementatzeko orduan parte hartzen duten organo eta erakundeei dagokienez.

Gaur egun indarrean diren eta honako Plan honen oinarri izan daitezkeen Planak baino ez dira aipatzen:

### Altsasu

21 Agenda: Jasangarritasunerako tokiko ekintza plana. 2003

### Nafarroa

- Nafarroako Foru Erkidegoko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. plana. 2006-2010
- Nafarroako III. Enplegu Plana. 2005-2007
- Nafarroako Foru Erkidegoko landa eremuaren garapenerako egitasmoa. 2007-2013

### Estatua

- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako IV. Plana. 2003 – 2006.
- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako erkidegoetako planen eta plan nazionalaren azterketa konparatiboa. 2005eko urtarrila. Mtas. Emakumearen Institutua

### Europa

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lan plana, 2006-2010 (Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen irizpena, Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeari eta Eskualdeen Batzordeari egindako txostenari buruz) Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala 2006.12.23
- Genero Berdintasuna Egiturazko Funtsetan (2007-2013)





ALTSASUKO HIRIBILDUKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA M.I. VILLA DE ALSASUA

## **II. eranskina: EBALUAZIO ALDAGAIEN ETA ADIERAZLEEN PROPOSAMENA**



ALTSASUKO HIRIBILDUKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA M.I. VILLA DE ALSASUA

Plan edo programa baten balioa aztertzeko modu ugari daude; edonola ere, interes handikoa da **aldagai** hauei buruzko informazioa edukitzea:

- Plana eragin duten beharrei buruz egoki denaren ebaluazioa : egokitasuna
- Planak baliatzen duen antolamendu baliabideen ebaluazioa : bideragarritasuna
- Tresnaren diseinuaren eta plangintzaren ebaluazioa : nahikotasuna
- Plana ebaluatzeko aukeraren ebaluazioa : ebaluagarritasuna
- Planaren gauzatze prozesuaren ebaluazioa : gauzatzeko gaitasuna
- Helburuen ebaluazioa : betetzeko gaitasuna
- Parte hartze aktiboaren ebaluazioa : erakundeen eta gizartearen parte hartzea
- Planaren hedaduraren ebaluazioa : planaren irispina
- Erregistratutako ondorioen ebaluazioa : eragina
- Hautematearen ebaluazioa : hautemandako berdintasuna
- Koordinazioaren ebaluazioa : Jarraipen Batzordea

Plana sistematizatzeko kontuan hartu diren osagaiak aztertuz gero, **aldagai** hauei buruzko azterketa kualitatiboa egin daiteke:

- Konpromisoa
- Zilegitasuna
- Uztardura
- Ingurunearen ezagutza
- Plangintza
- Ezarpena, sustapena eta jarraipena
- Gauzatzea
- Ebaluazioa
- Feedback-a



**1. fitxa: EBALUAZIORAKO INKESTA. PARTE HARTZEA GOGOETA PROZESUETAN**

Sexua	
Adina	
Zein programatan parte hartu duzu?	
1. Zer iritzi duzu zure lan taldean landu den planaren proposamen teknikoari buruz?	
2. Bilera horren bitartez, gehiago al dakizu emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako politikei buruz, edo argitu al dizu gai horri buruzko kontzepturik?	
3. Bilera horrek lagundu al dizu Emakumearen Batzordearen zeregina hobeto ulertzen?	
4. Zer iruditzen zaizu Plana osatzeko parte hartze prozesuaren barruan lan talde hauetarako deialdia egin izana?	
5. Nola ezarri beharko litzateke, zure ustez, plan hau?	



## ESKU-HARTZE KATEGORIA GUZTIETAKO ADIERAZLE KOMUNAK

2. FITXA: EKINTZA IDENTIFIKATZEA	
Izendapena	
Deskribapena	
Lan ildoa	
Programa	
Jardueren zerrenda	
Beste erakunde baten planari, programari edo proiektuari buruzko koherentzia eta/edo koordinazioa	
Lortu nahi diren emaitzak	
Garapen denbora	
Nori zuzendua den	
Departamentu arduraduna	
Departamentu / Erakunde kolaboratzaileak	
Lankidetzaren mota (pertsonek, finantza, teknika, azpiegiturak, informazioa)	
Ebaluaziorako aldagaiak eta adierazleak	
Zuzeneko kostuak eta aurrekontuaren ildoa	
Aplikaturako giza baliabideak	



## ADIERAZLE ESPEZIFIKOAK, ESKU-HARTZE KATEGORIEN ARABERA

<p><b>1. Kategoria. Informazioa, zabalkundea, sentsibilizazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Zenbat kontsulta pertsonal hartu diren (juridikoak, dokumentalak, psikologikoak, lanaren arlokoak)</li><li>-Zenbat kontsulta eskatu diren eta zenbat eratorri diren</li><li>-Informazio mota, zabalkundea edo emandako aholkularitza</li><li>-Talde hartzaile mota eta eremua</li><li>-Zenbat kanpaina egin diren</li><li>-Zenbat argitalpen argitaratu edo eguneratu diren</li><li>-Zenbat ale banatu diren</li><li>-Zenbat programa egin diren komunikabideetan</li><li>-Zenbat dokumentu funts bildu diren</li><li>-Zenbat hitzaldi, topaketa, eztabaida, jardunaldi egin diren</li><li>-Zenbat hitzaldi, topaketa, eztabaida, jardunaldi eskatu diren</li></ul>	<p><b>2. Kategoria. Formazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Zenbat ikastaro eman diren</li><li>-Emandako formazio mota</li><li>-Zenbat adituk parte hartu duten</li><li>-Formazio orduak</li><li>-Zenbat parte hartzaile aritu diren (adinaren eta sexuaren arabera)</li><li>-Hartutako ikaskuntzaren aplikazio mota</li><li>-Hartutako ezagutzaren proiektzio eremua (proiektuak, biztanleria, geografia eremua).</li><li>- Unibertsitate mailako praktiken formazio zuzendaritza</li></ul>
<p><b>5. Kategoria. Koordinazioa, lankidetzak, sareak</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Zenbat koordinazio eta kooperazio jarduera antolatu diren (bilerak, hitzarmenak, dirulaguntzak, batzordeak...)</li><li>- Zenbat koordinazio eta lankidetzak mekanismo jarri diren martxan</li><li>- Zenbat koordinazio eta lankidetzak mekanismo hartu diren eta zer motatakoak izan diren (prozedurak, errutinak, protokoloak, finantzazioa, laguntza teknikoa, giza baliabideen mailako laguntza)</li><li>-Administrazioko zenbat sailekin aritzen den lankidetzan eta koordinazioan</li><li>-Koordinazioan edo lankidetzan parte hartzen duten erakundeak</li><li>-Jarduera motak (bilerak, hitzarmenak, dirulaguntzak, sareak)</li><li>-Zenbat organok, batzordek, planek, kontseiluk, programak parte hartu duten</li><li>-Zenbat plan, programa, agiri, neurri, arau, tresna metodologikori egin zaizkien proposamenak</li></ul>	<p><b>6. Kategoria. Neurriak proposatzea, berrikustea eta hartzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>-Zenbat neurri aztertu eta proposatu diren</li><li>-Zenbat neurri hartu diren</li><li>-Zenbat aldaketa sartu diren</li><li>-Onartutako eta baztertutako zenbat neurri berrikusi diren</li><li>-Hartutako neurri motak (administratiboak, legegileak, finantzarioak, hezkuntzazkoak, osasunaren alorrekoak...)</li></ul>



ALTSASUKO HIRIBILDUKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA M.I. VILLA DE ALSASUA

### **Egitura egonkorren sorrera, zerbitzuak**

- Zenbat baliabide sortu, hartu, baliatu eta zabaldu diren
- Zer baliabidetan esku hartu den
- Baliabideetan hartutako neurri motak: sorrera, finantzazioa, arautzea, orientazio aldaketa, beste batzuk
- Esku hartutako zerbitzuetan zenbat erabiltzaile dauden eta zer erabiltzaile mota diren (emakumeak, gizonak, familia unitateak, elkarteak, erakundeak, organismoak, talde profesionalak...)